

IV. Kapitulua

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Ogasunak

Capítulo IV

Haciendas Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa

1. SARRERA

I. kapitulan Lurralde Historikoetako Erakundeek zergen alorrean dauzkaten eskumenak azaldu eta iruzkindu ondoren, Kapitulua honetan Foru Ogasunek eskumen horiek nola erabiltzen dituzten azalduko dugu.

Hortaz, lehenengo eta behin, zergen alorreko berrikuntza nagusiak azalduko ditugu eta gero, zerga nagusien kudeaketaren inguruko estatistikak ikusiko ditugu. Zergen ikuskapenaren eta agentzia exekutiboaren jarduerari buruzko datuak ere eskainiko ditugu.

Beherago Foru Ogasunen kudeaketa ekonomikoa analizatuko dugu eta arreta berezia eskainiko diegu bilketaren alderdiei, eta azkenean, Auzitegi Ekonomiko-Administratiboei buruzko ohar txiki batekin bukatuko dugu.

1. INTRODUCCIÓN

Una vez expuestas y comentadas en el Capítulo I las competencias de las Instituciones de los Territorios Históricos en materia tributaria, en este Capítulo se trata de exponer la utilización de estas competencias por las Haciendas Forales.

De este modo, se exponen, primeramente, las principales novedades en materia tributaria y, posteriormente, se detallan las estadísticas correspondientes a la gestión tributaria de los principales tributos. También se ofrecen datos sobre la actividad de la inspección de los tributos y de la agencia ejecutiva.

Más adelante, se analiza la gestión económica de las Haciendas Forales, con especial atención a los aspectos recaudatorios, para finalizar con una breve referencia a los Tribunales Económico-Administrativos.

2. ARAUGINTZA

2008an zehar lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga alorreko hainbat xedapen onartu zituzten (haien zerrenda xehekatua 1. eranskinean jaso dugu); xedapen horiek erabiltzen duten ordena, hain zuzen ere, gida moduan erabiliko dugu, 2008an onartu diren aldaketa nagusiak zerrendatzeko.

Euskal zerga-sistemako ia zerga guzti-guztiak aldatu dira, guztiek aldaketaren baten eragina izan baitute.

Onartu diren aldaketa nagusietako batzuek oraingo kontrako abagune honetan dute oinarria. Izaera ekonomikoko hainbat zertzeladaren bat-etortzearen ondorio da abagune hori, eta horrek eragin du, hain zuzen ere, zerga arloko neurri horiek onartzea, Euskadiko eremu ekonomikoan sortu dituzten eragin negatiboei aurre egiteko asmoz.

Jarraian, onartu diren neurri nagusien errepaso labur bat egingo dugu, kontuan izanik horrelako neurriak aho batez onartu direla hiru lurralde historikoetan, zeren eta, haiez gain, lurralde horietako batzuek berariazko neurri batzuk ere hartu baitituzte.

Zergen Arau Orokorrari dagokionez, zerga-iruzurraren kontra borrokatzera bideratutako neurri batzuk hartu dira. Haien artean, aipa daitezke:

- Erantzukizun subsidiarioko kasu berri batzuk ezarri dira, eta “beloa altxatze” delakoari buruzko jurisprudenzia-doktrina osatzen dutenak.
- Berariaz aitortzen da zerga-identifikazioko zenbakirako eskabideetan datu faltsuak edo faltsutuak jakinaraztea zerga arloko arau-haustea dela, eta jarduera horri aplikagarri zaizkion zehapen eta arau-hausteen araubidea ere ezarri da.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eremuan:

- Euskal zergadunen egoera hobetzen lagunduko duen beste kenketa bat onartzea, urteko 400 eurokoa.

2. ACTIVIDAD NORMATIVA

Durante el año 2008 se han aprobado por parte de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos bastantes disposiciones tributarias, cuya relación pormenorizada se refleja en el Anexo I, y cuyo orden utilizado va a servir de guía a la hora de relacionar las principales modificaciones aprobadas durante 2008.

Prácticamente la totalidad de tributos del sistema tributario vasco se han visto afectados por alguna modificación.

Algunas de las principales modificaciones aprobadas tienen su fundamento en la coyuntura adversa derivada por la convergencia de diversas circunstancias de índole económico, que han aconsejado aprobar dichas medidas tributarias con el fin de atajar los efectos negativos que han producido en el ámbito económico del País Vasco.

A continuación se hace un breve repaso de las principales medidas aprobadas, teniendo en cuenta que se han adoptado de manera unánime en los tres Territorios Históricos, ya que junto a éstas, alguno de estos han aprobado medidas específicas.

En lo que respecta a la **Norma General Tributaria** se introducen medidas tendentes a la lucha contra el fraude fiscal. Entre ellas pueden citarse:

- Se establecen nuevos supuestos de responsabilidad subsidiaria, que completan la doctrina jurisprudencial del levantamiento del velo.
- Se declara de forma expresa que la comunicación de datos falsos o falseados en las solicitudes del número de identificación fiscal constituye infracción tributaria, estableciéndose el régimen de sanciones e infracciones aplicable a dicha actuación.

En el ámbito del **Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**, cabe destacar:

- Aprobación de una nueva deducción para mejorar la situación de los contribuyentes por importe de 400 euros anuales.

- Aldi berean igo egin dira baterako tributazioagatiko murriztapena eta kenketa pertsonal eta familiarrak, eta aldatu egingo dira zergaren tarifak, gai horiek prezioen igoerak etxeko ekonomietan izan duen eraginera egokitze asmoz.
- Aldaketa horiei dagokienez, igo egin da autoliquidazioa aurkezteko betebeharra zehazteko ezarrita dagoen gutxienekoa, eta zenbateko hori 9.000 eurotik 12.000 eurora igo da.
- % 30eko kenketa berri bat sartzen da alderdi politikoentzat egindako kuota eta ekarpenetan.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarekin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin gertatzen den bezala, **Sozietateen gaineko Zergaren** araudia 28/2007 Legeak eragiketen bolumenari dagokionez (6 milioi eurotik 7 milioira igotzen da bolumen hori) Ekonomia Itunean sartu dituen aldaketetara egokitzen da.

Merkataritza-legediak kontabilitate arloan izan duen erreformaren ondorio diren aldaketak ere Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudira egokitu behar izan dira.

Aipatu beharreko beste berritasun bat honako hau da: jabetza intelektual edo industrial erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei aldi baterako lagatzea pizgarritzeko zerga arloko tratamendua, dela enpresa lagatzaileak garatzekoa bada, dela ondoren lagatzeko eskuratzen badira.

Ondareari buruzko Zergari dagokionez, Araban nahiz Bizkaian, indargabeturik geratu da zerga hori (08-1-1etik aurrera izan ditu ondorioak indargabetze horrek), eta bakarrik indarrean iraun dute zerga horretara igortzen diren edo hari buruz erreferentzia egiten duten xedapen orokorren edukia osatzeko balio duten arauak, harik eta arau horien aldaketa egiten den arte. Indargabetze hori ulertu behar Administrazioak aldeztu aurretik sortua den zorra galdatzeko duen eskubideari kalterik egin gabe.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruz, aipatu behar da salbuespena

- De manera paralela se procede a elevar la reducción por tributación conjunta y las deducciones personales y familiares, así como a modificar la tarifa del impuesto, con objeto de adecuar estas materias al efecto que ha provocado el alza de los precios en las economías domésticas.
- En relación con estas modificaciones se elevó el mínimo establecido por el que se determina la obligación de presentar la autoliquidación, elevando dicho importe de 9.000 a 12.000 euros.
- Se introduce una nueva deducción del 30% de las cuotas y aportaciones realizadas a partidos políticos.

Al igual que con el Impuesto sobre la Renta de no Residentes y el Impuesto sobre el Valor Añadido, se adapta la normativa del **Impuesto sobre Sociedades** a las modificaciones incluidas en el Concierto Económico por la Ley 28/2007, en lo que concierne al volumen de operaciones que se eleva de 6 a 7 millones de euros.

También ha sido necesario adecuar la normativa del Impuesto sobre Sociedades a los cambios derivados de la reforma de la legislación mercantil en materia contable.

Otra de las novedades a destacar es el tratamiento tributario para incentivar la cesión temporal a terceros del derecho de uso o explotación de la propiedad intelectual o industrial, tanto si ha sido desarrollada por la empresa cedente como si son adquiridos para su posterior cesión.

En lo que respecta al **Impuesto sobre el Patrimonio**, tanto en Álava como en Bizkaia queda derogado con efectos desde 1-1-08, manteniéndose en vigor únicamente las normas que sirvan para completar el contenido de las disposiciones generales que se remitan o hagan referencia a dicho Impuesto, hasta que se proceda a la modificación de las mismas. Derogación entendida sin perjuicio del derecho de la Administración a exigir la deuda devengada con anterioridad.

En cuanto al **Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados** cabe resaltar el

ezarri dela honako hauetarako:

- Legebiltzarrean ordezkariak dituzten alderdi politikoak.
- Desgaitasunen bat duten pertsonen ondare babestuetara egindako ekarpenak dokumentatzen dituzten eskritura publikoak.
- Alderantzizko hipotekak eratze-, aldaberritze- eta deuseztatze-eragiketak dokumentatzen dituzten eskritura publikoak, egintza juridiko dokumentatuen zergapetzeari dagokionez.

Jokoaren gaineko Zergan kasinoko jokoei aplikagarri zaien tasa birdoitu egin da.

3. ZERGEN KUDEAKETA

3.a. Zerga zuzeneko kudeaketa

3.a.1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

a. Aurkezpeneko datuak

Atal honetan egiten den PFEZren analisirako erabili diren datu estatistikoak, guzti guztiak, 2007ko ekitaldiko autoliquidazioei dagozkie, 2008an aurkeztutakoei, hain zuzen ere.

2008an PFEZren inguruan gauzatutako araugintza alde batera utzita, aztertutako datuak datuon jatorriko urtean –hau da, 2007an– indarrean zegoen araudiaren arabera likidatuak izan ziren.

Urte horretan indarrean sartu ziren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren foru-arauak, PFEZ eraberritzen zutenak, alegia. Onartutako berrikuntza nagusiak ondorengoak dira:

Salbuespenak. Ezintasun iraunkorra eta kalte fisiko, psikiko edo moralen aseguru kontratuen ondorioz jasotako zenbatekoen inguruko aldaketa batzuekin batera, sistematikoki aurrezteko banakako planen ondoriozko bizitza osorako errenta aseguratuak eratzeak unean adierazitako errenten salbuespena eta gehienez 1.500 euroraino dibidenduen salbuespenaren

establecimiento de la exención para:

- Partidos políticos con representación parlamentaria.
- Las escrituras públicas que documenten las aportaciones a patrimonios protegidos de personas con discapacidad.
- Las escrituras públicas que documenten operaciones de constitución, novación y cancelación de hipoteca inversa, en lo que respecta al gravamen de Actos Jurídicos Documentados.

En el **Tributo sobre el Juego** se reajusta el tipo aplicable a los juegos de casino.

3. GESTIÓN TRIBUTARIA

3.a. Gestión de Impuestos Directos

3.a.1. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

a. Datos de presentación

Los datos estadísticos que se han utilizado para el análisis del IRPF, que se lleva a cabo en este apartado, se refieren a la totalidad de las autoliquidaciones del ejercicio 2007, presentadas en 2008.

Independientemente de la actividad normativa desarrollada en 2008 con relación al IRPF, los datos analizados fueron liquidados con arreglo a la normativa vigente en su año de origen, es decir, 2007.

En este año entraron en vigor las Normas Forales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que reformaban el IRPF. Como principales novedades se citan las siguientes:

Exenciones. Junto con algunas novedades relacionadas con la incapacidad permanente y las percepciones derivadas de contratos de seguro por daños físicos, psíquicos o morales, debe destacarse la introducción de la exención de las rentas puestas de manifiesto en el momento de la constitución de rentas vitalicias aseguradas resultantes de los planes individuales de ahorro sistemático y el establecimiento de la exención de los

ezarpena gailendu behar dira.

Laneko errendimenduak. Errendimendu horiei aplikatzen zaizkien hobariak areagotu ziren eta sindikatuko kuota kuotako kenkari gisa osatu zen eta laneko auzien ondoriozko defentsa juridikoko gastuak ez dira kengarriak.

Jarduera ekonomikoak. Zuzeneko estimazioaren erregimen sinplifikatuen modalitatea aplikatzeko gehieneko muga 500.000 eurotik 600.000 eurora areagotu zen eta modalitate horretako prozeduretariko bat bakarrik geratu da indarrean, baina araudien bitartez, jarduera jakin batzuetarako arau espezifikoak tipifikatzeko aukera eman zen. Bestalde, iruzur fiskala prebenitzeko neurrien azaroaren 29ko 36/2006 Legeak beste balizko atxikipen bat erantsi zuen, hau da, errendimenduak jarduera ekonomiko jakin batzuen kontraprestazioa direnean eta jardueraren errendimendu garbia estimazio objektiboko zeinu, indize edo moduluen modalitatearen arabera zehazten denean. Atxikipenaren ehunekoa asetako diru-sarrera kopuru osoaren % 1ekoa da.

Kapital higiezinaren errendimenduak. Berrikuntzetariko bat aurrezkiaren errentan, % 18an tributatzeko, etxea alokatzearen ondoriozko errendimendu garbiaren sartu zela da. Errendimendu garbi hori jasotako zenbateko osoan % 80 aplikatuz eta gero, interesak eta finantzaketaren gainontzeko gastuak kenduz lortzen da. Gainera, ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezinaren titulartasunagatik egozpena kendu zen.

Kapital higigarriaren errendimenduak. Dibidenduen lehenengo 1.500 euroetarako aipatutako salbuespenaz gain, horiek % 18an tributatzea xedatu zen eta ezarpen bikoitzagatik kenketaren ezabaketa kendu zen.

Ondare irabaziak. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera murrizketa koefizienteak kendu dira, baina 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuetatik lortutako ondare irabazietako erregimen iragankorra mantendu da.

dividendos hasta un importe máximo de 1.500 euros.

Rendimientos del trabajo. Aumentan las bonificaciones aplicables a estos rendimientos, pasando la cuota sindical a configurarse como una deducción en cuota y desapareciendo como deducibles los gastos de defensa jurídica derivados de litigios laborales.

Actividades económicas. Aumenta el límite del volumen de operaciones por debajo del cual puede aplicarse la modalidad simplificada del régimen de estimación directa de 500.000 a 600.000 euros y queda en vigor sólo uno de los procedimientos de esta modalidad, sin perjuicio de que reglamentariamente puedan tipificarse reglas especiales para determinadas actividades. Por otra parte, la Ley 36/2006, de 29 de noviembre, de medidas para la prevención del fraude fiscal añade un nuevo supuesto de retención cuando los rendimientos sean contraprestación de determinadas actividades económicas y se determine el rendimiento neto de la actividad con arreglo a la modalidad de signos, índices o módulos del método de estimación objetiva. El porcentaje de retención se establece en el 1% sobre los ingresos íntegros satisfechos.

Rendimientos del capital inmobiliario. Una de las novedades es la integración en la renta del ahorro, a tributar al 18%, del rendimiento neto derivado del arrendamiento de viviendas, rendimiento neto que se obtiene de aplicar el 80% sobre el importe íntegro percibido y de deducir posteriormente los intereses y demás gastos de financiación. Además, se elimina la imputación por la titularidad de bienes inmuebles distintos de la vivienda habitual.

Rendimientos del capital mobiliario. Además de la exención comentada para los primeros 1.500 euros de dividendos, éstos tributarán al 18%, desapareciendo la eliminación de la deducción por doble imposición.

Ganancias patrimoniales. Se eliminan los coeficientes de abatimiento a partir del 1 de enero de 2007, pero se mantiene un régimen transitorio para las ganancias patrimoniales derivadas de elementos patrimoniales adquiridos antes del 31 de diciembre de 1994.

Errenta eta integrazio motak. Errenta mota bi bereizten dira: lanetik edo jarduera ekonomikotik datozen errentak eta aurrezkiaren errenta –ondare elementuen transmisioetan agerian geratzen diren ondare irabazi eta galerek, etxebizitzatik datozen kapital higiezinaren errendimenduek eta kapital higigarriaren errendimenduek, jarduera ekonomiko baten antzekoak direnek izan ezik (jabetza intelektual edo industrialaren ondoriozko eskubideak, laguntza teknikoaren prestazioa, ondasun higigarrien alokairuak, negozioak edo meategiak eta irudiaren gaineko eskubideen lagapenaren ondoriozkoak) osatzen dute-. Lehenengoak tarifa progresiboarekin zergapetzen dira eta bigarrenak % 18ko tasa finkoarekin.

Gizarte Aurreikuspena. Kopuru kengarria 2.000 eurotik 2.400 eurora igo zen diru-sarrerarik gabeko edo zenbateko jakin baten azpitik dauden diru-sarrerak dauzkan ezkontidearen aldeko ekarpenengatik. Horrez gain, langileek enpresako gizarte aurreikuspen planetan egindako ekarpenen kenketa (hartzailearen ekarpenak barne) gehitu zen.

Likidazio-oinarri orokorrari aplikatzen zaion zergaren tarifikak seitik bostera jaitsi zituen bere tarteak, ondorioz, gehieneko tasa marginala % 45era jaitsi zen (lehen % 48koa zen) eta gutxieneko tasa marginala % 23ra, lurralde komunean eta gure inguruko herrialdeetan gauzatzen ari diren erreforma fiskalen ildotik.

“Zero” tarteak (3.746,00 euroraino) eta 2006an indarrean zegoen % 15eko gutxieneko tasa (3.746,00 eta 6.868,00 euro arteko likidazio-oinarrirako) ezabatu egin ziren eta autolikidazio bakoitzeko aplika daitekeen urteko 1.250 euroko kenketa berri batek ordezkatu zituen, eta horretaz baliatu ahalko dira beren errentak zerga-oinarri orokorrean, aurrezkiarenean edo bietan dauzkaten zergapeko guztiak.

2007ko ekitaldirako likidazio-oinarri orokorra, honako eskala honetan adierazten den tasetan zergapetzen da:

Clases de renta e integración. Se diferencian las rentas provenientes del trabajo o de la actividad económica y la renta del ahorro - que estaría integrada por las ganancias y pérdidas patrimoniales que se pongan de manifiesto con ocasión de transmisiones de elementos patrimoniales, por los rendimientos del capital inmobiliario procedentes de vivienda y por los rendimientos del capital mobiliario, con excepción de aquellos que por su naturaleza pueden asemejarse a una actividad económica (derechos derivados de la propiedad intelectual o industrial, prestación de asistencia técnica, arrendamientos de bienes muebles, negocios o minas y los derivados de la cesión de derechos de imagen)-, gravándose las primeras a una tarifa progresiva y la segunda a un tipo fijo del 18%.

Previsión Social. Se eleva la cantidad reducible de 2.000 a 2.400 euros por aportaciones a favor del cónyuge sin ingresos o con ingresos por debajo de una determinada cuantía. Además, se incorpora la reducción por aportaciones realizada por los trabajadores a los planes de previsión social empresarial, incluyendo las contribuciones del tomador.

La tarifa del impuesto aplicable a la base liquidable general reduce sus tramos de seis a cinco, siendo el tipo marginal máximo del 45% -frente al 48% anterior- y el tipo marginal mínimo del 23%, en línea con las reformas fiscales que se están llevando a cabo en territorio común y en los países de nuestro entorno.

El tramo “cero” (hasta 3.746,00 euros) y el tipo mínimo vigente en 2006 del 15% (para la base liquidable entre 3.746,00 y 6.868,00 euros) desaparecen, siendo sustituidos por una nueva deducción general de 1.250 euros anuales aplicable por cada autoliquidación, y de ella se benefician todos los contribuyentes tengan sus rentas en la base imponible general, en la del ahorro o en ambas.

La base liquidable general para el ejercicio 2007 se grava a los tipos que se indican en la siguiente escala:

Likidazio-oinarri orokorra (goi muga) Base liquidable general hasta Euroak / Euros	Kuota osoa Cuota íntegra Euroak / Euros	Likidazio-oinarri orokorraren gainekoa Resto base liquidable hasta Euroak / Euros	Tasa Tipo aplicable %
0	0	14.000	23,00
14.000	3.220	14.000	28,00
28.000	7.140	14.000	35,00
42.000	12.040	18.000	40,00
60.000	19.240	Hortik gora en adelante	45,00

Kenketa berriak. Lehen aipatutako kenketa orokorra ezarri izanaz gain, beste kenketa batzuk sortu ziren, adibidez, % 30eko kenketa pertsona minusbaliatuen ondare babesturako senideek egiten dituzten ekarpenetarako, sindikatuko kuotaren % 30eko kenketa eta mezenasgorako pizgarri fiskalen eta irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga erregimena aplikatzeko exijitzen diren betekizunak betetzen ez dituzten erabilera publikoko elkarte eta fundazioei emandako zenbatekoen % 10eko kenketa.

Kenketen ezabaketa. Etxebizitza alokatzearen ondoriozko kenketa, barne ezarpen bikoitzaren ondoriozko kenketa eta nazioarteko adopzioaren ondoriozko kenketa ezabatu ziren.

Etxebizitzaren ondoriozko kenketa. Ohiko etxebizitza eskuratzeko inbertitutako zenbatekoen batuketaren eta besteren kapitalak erabiltzearen ondorioz ordaindutako interesen % 18ko kenketa ezarri zen. Gainera, kenketa hori asko sinplifikatu zen aurreko araudiarekin alderatuta.

b. Aitorpen kopurua

Zergadunek, 2008. urtean, 1.129.244 aitorpen egin zituzten, 2007ko zerga-ekitaldiko sarrerak aitortzeko; beraz, aurreko ekitaldian baino 47.897 aitorpen gehiago egin zirenez, hau da, aitorpenen kopurua % 4,4 igo zen. Igoera horrek azken urteetako gehikuntza-joera berrestea ekarri du.

Nuevas deducciones. Además del establecimiento de la deducción general anteriormente citada, se crean otras como la deducción del 30% para las aportaciones al patrimonio protegido de la persona con discapacidad efectuadas por parientes, una deducción del 30% de la cuota sindical y una deducción del 10% de las cantidades donadas a fundaciones y asociaciones de utilidad pública que no cumplan los requisitos exigidos para la aplicación del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Eliminación de deducciones. Se eliminan la deducción por arrendamiento de vivienda, la deducción por doble imposición interna y la deducción por adopción internacional.

Deducción por vivienda. Se establece la deducción del 18% de la suma de las cantidades invertidas en la adquisición de la vivienda habitual y de los intereses satisfechos por la utilización de capitales ajenos. Además, esta deducción se simplifica notablemente respecto a la normativa anterior.

b. Número de declaraciones

En el año 2008 se presentaron 1.129.244 declaraciones referidas al ejercicio impositivo 2007. Esto significó un aumento del 4,4% respecto a las presentadas en el ejercicio anterior, es decir, 47.897 declaraciones más. Este aumento supone confirmar la tendencia de incrementos en los últimos años.

PFEZ. EUSKAL AE / 2007 / IRPF. C.A. DE EUSKADI
AITORPEN-KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DEL Nº DE DECLARACIONES POR TERRITORIOS HISTÓRICOS


	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI
2002	147.726	517.341	328.735	993.802
2003	151.155	528.907	336.422	1.016.484
2004	154.589	533.022	343.008	1.030.619
2005	159.135	542.380	353.005	1.054.520
2006	161.495	556.158	363.694	1.081.347
2007	168.983	578.792	381.469	1.129.244
% 03/02	2,3	2,2	2,3	2,3
% 04/03	2,3	0,8	2,0	1,4
% 05/04	2,9	1,8	2,9	2,3
% 06/05	1,5	2,5	3,0	2,5
% 07/06	4,6	4,1	4,9	4,4

KOADROA / CUADRO IV.1

Aurkeztutako aitorpen-kopuru osotik, % 51,3 Bizkaikoak izan ziren, % 33,8 Gipuzkoakoak eta % 15 Arabakoak, aurreko ekitaldietako ehunekoen datu oso antzekoak, alegia.


Del total de declaraciones presentadas, el 51,3% correspondieron a Bizkaia, el 33,8% a Gipuzkoa y el 15% a Álava, valores muy similares a los de ejercicios anteriores.

EUSKAL AE. PFEZ / IRPF. C.A. DE EUSKADI
AITORPEN-KOPURUAREN BILAKAERA / EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE DECLARACIONES



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.1


PFEZ / 2007 / IRPF
AITORPEN-KOPURUAREN BANAKETA PORTZENTUALA LURRALDE HISTORIKOKA
DISTRIBUCIÓN PORCENTUAL DEL Nº DE DECLARACIONES POR TERRITORIOS HISTÓRICOS



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.2

Zergak banaka ordaintzeko aukera izan da Autonomia Erkidegoko zergadunek gehien hautatu zuten aukera, aitorpenen % 75,6k modalitate hori aukeratu baitute; batera egindako aitorpenak, berriz, aitorpenen % 24,4 soilik izan ziren. Ehuneko horiek egoera sendotua islatzen bide dute zergadunen artean.

La opción de tributación individual es la mayoritaria entre los contribuyentes de la Comunidad Autónoma, el 75,6% de las declaraciones optan por esta modalidad, mientras la declaración conjunta que queda relegada al 24,4% de las declaraciones. Estos porcentajes parecen reflejar una situación consolidada entre los contribuyentes.



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.3

Familia-unitate bateko kide izanik, zergak elkarrekin ordaintzeko modalitatea hautatu zutenek, guztira, 275.237 aitorpen aurkeztu zituzten hiru lurralde historikoetan, aitorpenen guztizkoaren % 24,4, hain zuzen ere.

Los contribuyentes que perteneciendo a una unidad familiar optan por la modalidad de tributación conjunta presentaron 275.237 declaraciones en los tres Territorios Históricos, el 24,4% del total de declaraciones.

Banakako tributazioa aukeratzuz aurkeztu ziren 854.007 aitorpenetatik, % 48 familia-unitateren bateko kide diren zergadunei dagozkie.

De las 854.007 declaraciones que se presentaron optando por la tributación individual, el 48% corresponden a contribuyentes incluidos en una unidad familiar.

PFEZ / 2007 / IRPF									
AITORPEN-KOPURUA LURRALDE HISTORIKO, EMAITZA ETA MOTAREN ARABERA									
Nº DE DECLARACIONES POR TERRITORIOS HISTÓRICOS, RESULTADOS Y TIPO									
	ARABA ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI		
	KOP. / Nº	%	KOP. / Nº	%	KOP. / Nº	%	KOP. / Nº	%	
Familia unitatean sartu gabeko zergadunak	74.595	44,1	216.356	37,4	153.729	40,3	444.680	39,4	Contribuyentes no incluidos en una unidad familiar
Familia unitatean sartutako zergadunak	94.388	55,9	362.436	62,6	227.740	59,7	684.564	60,6	Contribuyentes incluidos en una unidad familiar
- Batera	39.521	23,4	149.986	25,9	85.730	22,5	275.237	24,4	- Conjunta
- Banaka	54.867	32,5	212.450	36,7	142.010	37,2	409.327	36,2	- Individual
Aitorpenak guztira	168.983	100,0	578.792	100,0	381.469	100,0	1.129.244	100,0	Total declaraciones
Positiboak	33.833	20,0	125.395	21,7	82.815	21,7	242.043	21,4	Positivas
Negatiboak	1.374	0,8	1.831	0,3	1.150	0,3	4.355	0,4	Negativas
Itzultzekoak	133.776	79,2	451.566	78,0	297.504	78,0	882.846	78,2	A devolver

KOADROA / CUADRO IV.2

Itzultzeko emaitza lortu zuten aitortpenak kopuru osoaren % 78,2 izan ziren, hau da, 882.846 aitortpen.

Las declaraciones a devolver representan el 78,2% del total, es decir, 882.846 declaraciones.

PFEZ. EUSKAL AE / IRPF. C.A. DE EUSKADI								
AITORTPEN-KOPURUAREN BILAKAERA MOTA ETA LURRALDE HISTORIKOKA								
EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE DECLARACIONES POR TIPO Y TERRITORIOS HISTÓRICOS								
	ARABA ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI	
	BKA./INDIV.	BRA./CONJ.	BKA./INDIV.	BRA./CONJ.	BKA./INDIV.	BRA./CONJ.	BKA./INDIV.	BRA./CONJ.
2002	107.185	40.541	354.354	162.987	238.655	90.080	700.194	293.608
2003	110.337	40.818	365.317	163.590	241.305	95.117	716.959	299.525
2004	114.099	40.490	370.807	162.215	247.964	95.044	732.870	297.749
2005	119.310	39.825	384.731	157.649	258.085	94.920	762.126	292.394
2006	109.272	52.223	402.782	153.376	270.165	93.529	782.219	299.128
2007	129.462	39.521	428.806	149.986	295.739	85.730	854.007	275.237
% 03/02	2,9	0,7	3,1	0,4	1,1	5,6	2,4	2,0
% 04/03	3,4	-0,8	1,5	-0,8	2,8	-0,1	2,2	-0,6
% 05/04	4,6	-1,6	3,8	-2,8	4,1	-0,1	4,0	-1,8
% 06/05	-8,4	31,1	4,7	-2,7	4,7	-1,5	2,6	2,3
% 07/06	18,5	-24,3	6,5	-2,2	9,5	-8,3	9,2	-8,0


KOADROA / CUADRO IV.3

IV.3 Taulan, 2002. eta 2007. urteen arteko aitortpen-kopurua tributazio motaren arabera jaso da.

2007an hazi egin da banakako modalitatean aurkeztutako aitortpenen kopurua; baterako aitortpenak, aldiz, jaitsi egin dira. Datu horiek baieztatu egiten dute azken ekitaldietako joera: banakako aitortpenen ordezkartza-ehunekoen igoera neurritsua, baterako zergapetzearen beherapen txiki baina jarraituaren aldean.

En el Cuadro IV.3, se recoge la evolución, según tipos de tributación, del número de declaraciones entre 2002 y 2007.

En 2007 crece el número de declaraciones presentadas en la modalidad individual mientras descenden las declaraciones conjuntas. Estos datos confirman la tendencia, en los últimos ejercicios, de aumento moderado del porcentaje de representación de las declaraciones individuales frente al pequeño pero continuo detrimento de la tributación conjunta.



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.4

Aitorpenen kopuruari buruzko informazioa zabaldu egiten da hiru lurralde historikoetan, errenta-mailen eta azkeneko ekitaldietan izandako bilakaeraren arabera, II.1.2 eta 3. eranskinetan bildutako tauletan.

c. Likidazio-oinarriaren, kuota osoaren eta kuota likidoaren banaketa

Likidazio-oinarria, zerga-oinarria bezala, likidazio-oinarri orokorrak eta aurreztearen likidazio-oinarriak osatua dago, eta zerga-oinarriaren gainean Zergari buruzko araudian aurreikusitako kenketak gauzatzearen ondorioa da. Likidazio-oinarria, betiere, bat etorriko da zerga-oinarriarekin, inolako kenketarik aplikatzea bidezko ez bada.

Se amplía la información sobre el número de declaraciones en los tres Territorios Históricos, según niveles de renta y su evolución en los últimos ejercicios, en las tablas recopiladas en los Anexos II.1.2 y 3.

c. Distribución de la base liquidable, cuota íntegra y cuota líquida

La base liquidable, al igual que la base imponible, está formada por la suma de la base liquidable general y la base liquidable del ahorro y es el resultado de practicar sobre la base imponible las reducciones previstas en la normativa del Impuesto. La base liquidable coincidirá con la base imponible si no procede la aplicación de ninguna reducción.

PFEZ / IRPF				
LIKIDAZIO-OINARRIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA				
EVOLUCIÓN DE LA BASE LIQUIDABLE POR TERRITORIOS HISTÓRICOS				
	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A.EUSKADI
2002	2.430.737	8.641.616	5.535.925	16.608.278
2003	2.571.649	9.139.663	5.864.870	17.576.182
2004	2.778.936	9.632.173	6.276.660	18.687.769
2005	2.998.663	10.372.377	6.795.617	20.166.657
2006	3.287.641	11.821.206	7.630.291	22.739.138
2007	3.560.275	12.769.958	8.318.740	24.648.973
% 03/02	5,8	5,8	5,9	5,8
% 04/03	8,1	5,4	7,0	6,3
% 05/04	7,9	7,7	8,3	7,9
% 06/05	9,6	14,0	12,3	12,8
% 07/06	8,3	8,0	9,0	8,4

KOADROA / CUADRO IV.4

2007ko likidazio-oinarria 24.600 milioi euro baino gehiagokoa izan zen, 2006koarekin alderatuta, % 8,4 igo zen, eta hiru lurralde historikoetan mantendu zen goranzko joera, bereziki Gipuzkoako Lurralde Historikoan; izan ere, bertan % 9tik gorako hazkundera izan zen.

Likidazio-oinarriari buruzko informazioa zabaldu egin da hiru lurralde historikoetan, errenta-mailen eta azkeneko ekitaldietan izandako bilakaeraren arabera, II.1.4 eta 5. eranskinetan bildutako tauletan.

Behin zati orokorra eta zerga-oinarriaren aurrezte, likidazio-oinarri orokorra eta aurreztearena zehazten direnean, kasuan kasuko zerga oinarri mota bakoitzari buruzko zergaren foru-arauan ezarritako kenketak gauzatzearen ondoriozkoak izango dira.

La base liquidable de 2007 superó los 24.600 millones de euros, aumentando un 8,4% respecto a 2006 y manteniendo su tendencia ascendente en los tres Territorios Históricos, especialmente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa con un porcentaje de crecimiento del 9%.

Se amplía la información sobre la base liquidable en los tres Territorios Históricos, según niveles de renta y su evolución en los últimos ejercicios, en las tablas recopiladas en los Anexos II.1.4 y 5.

Una vez determinada la parte general y la del ahorro de la base imponible, la base liquidable general o del ahorro, serán las resultantes de practicar las reducciones establecidas en la Norma Foral del Impuesto sobre cada correspondiente clase de base imponible.

Zerga-oinarri orokorra, errentaren sailkapenari erantzunez, aurreztearen errentaren izendapena ez duten errendimenduek eta ondarezko irabazigalerek, bai eta errentaren egozpenek ere, osatuta dago:

- Laneko errendimenduak.
- Jarduera ekonomikoen errendimenduak.
- Kapital higiezinaren errendimenduak.
- Kapital higigarriaren errendimendu batzuk.
- Transmisio baten ondorio diren ondarezko galera-irabaziak.
- Errentaren egozpenak.

Likidazio-oinarri orokorra, bestalde, zerga-oinarri orokorrean, soilik eta ordena honetan, honako kenketa hauek gauzatzearen emaitza da:

- Lehena: konpentsazioko pentsioak eta elikagaiengatik urterokoak ordaintzeagatik.
- Bigarrena: gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpen eta kontribuzioengatik.
- Hirugarrena: baterako zerga-ordainketagatik.

Kenketen aplikazioa, betiere, ezarritako ordenan gauzatu behar da, eta ez dezake eragin likidazio-oinarri negatibo bat lortzerik, ez eta oinarri horren gehikuntzarik ere.

La base imponible general, atendiendo a la clasificación de la renta, está constituida por aquellos rendimientos y ganancias y pérdidas patrimoniales que no tienen la consideración de renta del ahorro, así como las imputaciones de renta:

- Rendimientos de trabajo.
- Rendimientos de actividades económicas.
- Rendimientos de capital inmobiliario.
- Algunos rendimientos de capital mobiliario.
- Ganancias y pérdidas patrimoniales que no deriven de una transmisión.
- Las imputaciones de renta.

La base liquidable general es el resultado de practicar en la base imponible general, exclusivamente y por este orden, las siguientes reducciones:

- Primera: Por abono de pensiones compensatorias y anualidades por alimentos.
- Segunda: Por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social.
- Tercera: Por tributación conjunta.

La aplicación de las reducciones se debe practicar en el orden establecido y no puede dar lugar a la obtención de una base liquidable general negativa, ni al incremento de la misma.

PFEZ / IRPF				
LIKIDAZIO-OINARRI ORROKORRAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA				
EVOLUCIÓN DE LA BASE LIQUIDABLE GENERAL POR TERRITORIOS HISTÓRICOS				
	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A.EUSKADI
2004	2.679.349	9.303.996	6.009.381	17.992.725
2005	2.876.581	9.968.278	6.509.995	19.354.854
2006	3.095.855	10.980.826	7.083.700	21.160.381
2007	3.172.555	10.895.136	7.136.926	21.204.616
% 05/04	7,4	7,1	8,3	7,6
% 06/05	7,6	10,2	8,8	9,3
% 07/06	2,5	-0,8	0,8	0,2

KOADROA / CUADRO IV.5

Araudi berrian likidazio-oinarri orokorra osatzen duten errendimenduen eta ondarezko

El cambio de rendimientos y ganancias patrimoniales que componen, en la nueva

irabazien aldaketa dela eta, oinarri horren zenbatekoaren bilakaerak ez du zentzurik urteko konparaketan.

Nahiz eta 2007an likidazio-oinarri orokorraren zenbatekoa 21.200 milioi eurotik gora dagoen (gehikuntza txiki bat, % 0,2koa, 2006ren aldean), kontuan izan behar da, ekitaldi horretan, oinarri horretan ez direla txertatu aurreko ekitaldietan txertatu ziren errenta batzuk.

Likidazio-oinarri orokorrari buruzko informazioa zabaldu egiten da hiru lurralde historikoetan, errenta-mailen eta azkeneko ekitaldietan izandako bilakaeraren arabera, II.1.6 eta 7. eranskinetan bildutako tauletan.

Bestalde, aurreztearen likidazio-oinarriak aurreko araudiak likidazio-oinarri berezia zeritzana ordezkatzeko du; baina, hala eta guztiz ere, konparazioa ez da homogenea, zeren eta zerga-oinarri berezia osatzen zuten errentak zergadunaren ondarean egiten zuten iraute-aldiaren arabera zehazten baitziren, eta ez errentaren izatasunaren arabera.

PFEZren oraingo araudiak ezartzen du aurreztearen errenta honako hauek osatzen dutela: alde batetik, kapital higigarriaren errendimendu jakin batzuek, eta, bestetik, ondarezko osagaien transmisioaren ondorioz sortutako galera-irabaziek.

- Etxebizitza-errentatzat edo errentamendutzat hartzen diren errenten ondorio diren kapital higiezinaren errendimenduak.
- Edozein erakunde motaren funtsetan partaide izateagatik lortzen diren kapital higigarriaren errendimenduak.
- Kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortzen diren kapital higigarriaren errendimenduak.
- Kapitalizazio-eragiketetatik, bizi-aseguruko edo baliaezintasun-aseguruko kontratuetatik eta kapital-ezarpenaren ondorio diren errentetatik datozen kapital higigarriaren errentamenduak.
- Ondarezko osagaien transmisioak agerian jartzen dituzten ondarezko galera-irabaziak, galera eta irabazi horien sortze-

normativa, la base liquidable general hace perder sentido a la evolución de su cuantía en su comparación anual.

Aunque en 2007 el importe de la base liquidable general supera los 21.200 millones de euros con un pequeño incremento del 0,2% con respecto a 2006, hay que tener en cuenta que, en este ejercicio, no se ha integrado en esta base una serie de rentas que si lo hicieron en ejercicios anteriores.

Se amplía la información sobre la base liquidable general en los tres Territorios Históricos, según niveles de renta y su evolución en los últimos ejercicios, en las tablas recopiladas en los Anexos II.1.6 y 7.

Por otro lado, la base liquidable del ahorro viene a sustituir a la denominada por la anterior normativa base liquidable especial, sin embargo la comparación no es homogénea ya que las rentas que componían la base imponible especial se determinaban por el tiempo de permanencia en el patrimonio del contribuyente y no en función de la naturaleza de la renta.

La actual normativa del IRPF establece que la renta del ahorro la conforman determinados rendimientos de capital mobiliario y las pérdidas y ganancias originadas como consecuencia de transmisión de elementos patrimoniales:

- Los rendimientos de capital inmobiliario derivados de los considerados como arrendamiento de viviendas.
- Los rendimientos de capital mobiliario obtenidos de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad.
- Los rendimientos de capital mobiliario obtenidos por la cesión a terceros de capitales propios.
- Los rendimientos de capital mobiliario procedentes de operaciones de capitalización, de contratos de seguros de vida o invalidez y de rentas derivadas de la imposición de capitales.
- Las ganancias y pérdidas patrimoniales puestas de manifiesto por la transmisión de elementos patrimoniales con

aldia zein izan den alde batera utzita.

Aurreztearen likidazio-oinarria, berriz, aurreztearen zerga-oinarria murriztuz zehaztuko da. Murrizte hori konpentsazioko pentsio eta elikagaiengatik urteroko ordaindu ez aplikatuen (zerga-oinarri orokorrik ez izateagatik) gerakinean egingo da, baina gerakin horren aplikazioaren ondorioz ere ez daiteke negatiboa izan.

independencia del período de generación de la misma.

La base liquidable del ahorro se determina reduciendo la base imponible del ahorro en el remanente de las pensiones compensatorias y anualidades por alimentos satisfechas no aplicadas por insuficiencia de base imponible general, sin que tampoco pueda resultar negativa como consecuencia de la aplicación de dicho remanente.

PFEZ / IRPF				
AURREZTEKO LIKIDAZIO-OINARRIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA				
EVOLUCIÓN DE LA BASE LIQUIDABLE DEL AHORRO POR TERRITORIOS HISTÓRICOS				
	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A.EUSKADI
2004	99.587	328.178	267.279	695.044
2005	122.081	404.099	285.622	811.803
2006	191.787	840.380	546.591	1.578.757
2007	387.721	1.874.823	1.181.813	3.444.357
% 05/04	22,6	23,1	6,9	16,8
% 06/05	57,1	108,0	91,4	94,5
% 07/06	102,2	123,1	116,2	118,2

KOADROA / CUADRO IV.6

Likidazio-oinarri orokorraren bilakaera-konparazioaren inguruan aipatutakoaren kontrako noranzkoan, likidazio-oinarri berezia ordezkutzen duen aurreztearen likidazio-oinarriak gehikuntza ikusgarria jasan du, % 118tik gorakoa.

Oinarri horien konparazioa ere ez da homogenea; hala ere, zenbatekoaren bilakaerari buruzko datuak interesgarriak dira oraindik ere zergaren analisian.


IV.5 Grafikoan, 2006an aitortutako likidazio-oinarri bereziak aurreko ekitaldien aldean jasan zuen gehikuntza handia antzematen da, bai eta aurreztearen likidazio-oinarri berriak oinarri bereziaren aldean izan duen gehikuntza ikusgarria ere, hiru lurralde historikoetan.

En sentido contrario a lo comentado en torno a la comparación evolutiva de la base liquidable general, la base liquidable del ahorro que sustituye a la base liquidable especial ha sufrido un incremento espectacular, superior al 118%.

La comparación de estas bases no es homogénea, sin embargo los datos de la evolución de su cuantía siguen siendo interesantes en al análisis de Impuesto.

En el Gráfico IV.5 se aprecia el importante incremento que experimentó la base liquidable especial declarada en 2006 con respecto a ejercicios anteriores y el espectacular incremento de la nueva base liquidable del ahorro con respecto a la base especial, en los tres Territorios Históricos.

PFEZ-AREN LIKIDAZIO-OINARRI BEREZIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA BASE LIQUIDABLE DEL AHORRO DEL IRPF POR TERRITORIOS HISTÓRICOS



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.5

Aurreztearen likidazio-oinarriari buruzko informazioa zabaldu egiten da hiru lurralde historikoetan, errenta-mailen eta azkeneko ekitaldietan izandako bilakaeraren arabera, II.1.8 eta 9. eranskinetan bildutako tauletan.

Batez besteko guztizko likidazio-oinarria % 3,8 igo zen, 21.800 eurotik gorako batez besteko zenbatekoak adieraziz. Batez besteko likidazio-oinarri orokorra, berriz, 18.778 eurora iritsi zen, hau da, % 4ko beherapena izan zuen aldagai horrek; batez besteko likidazio-oinarria, berriz, 3.050 eurora iritsi zen, eta % 109 inguruko hazkundera izan zuen, aurreko ekitaldiaren aldean.

Puntu honetan, zerga-oinarriaren bolumen osoaz gain, aurkeztutako aitopen-kopurua ere kontuan hartu behar da, horiek ekonomiaren eboluzioarekin lotutako aldagarriak dira.

Se amplía la información sobre la base liquidable del ahorro en los tres Territorios Históricos, según niveles de renta y su evolución en los últimos ejercicios, en las tablas recopiladas en los Anexos II.1.8 y 9.

Por otro lado, la base liquidable total media experimentó un aumento del 3,8%, superando los 21.800 euros. La base liquidable general media se situó en los 18.778 euros, lo que supone una disminución del 4% y la base liquidable del ahorro media alcanzó los 3.050 euros con un crecimiento cercano al 109% respecto a la base liquidable especial media del ejercicio anterior.


En este punto ha de tenerse en cuenta, además del volumen total de la base liquidable, el número de declaraciones presentadas, variables interrelacionadas con la evolución económica.

PFEZ / IRPF
BATEZ BESTEKO LIKIDAZIO-OINARRIEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA BASE LIQUIDABLE MEDIA POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A.EUSKADI
2002	16.454,36	16.703,90	16.840,08	16.711,86
2003	17.013,32	17.280,28	17.433,08	17.291,15
2004	17.976,28	18.070,88	18.298,87	18.132,57
2005	18.843,51	19.123,82	19.250,77	19.124,02
2006	20.357,54	21.255,12	20.979,97	21.028,53
2007	21.068,84	22.063,12	21.807,12	21.827,85
% 03 / 02	3,4	3,5	3,5	3,5
% 04 / 03	5,7	4,6	5,0	4,9
% 05 / 04	4,8	5,8	5,2	5,5
% 06 / 05	8,0	11,1	9,0	10,0
% 07 / 06	3,5	3,8	3,9	3,8

KOADROA / CUADRO IV.7

BATEZ BATEKO LIKIDAZIO-OINARRIEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LAS BASES LIQUIDABLES MEDIAS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.6

IV.8 Taulan 2007ko ekitaldiko errenta- mailen araberako banaketa eta horien ehuneko erlatiboak eta aitortpenen kopurua, likidazio-oinarri orokorra eta aurreztearen likidazio-oinarria eta Euskal Autonomia Erkidegoan elkarrekin aitortutako dagokien kuota osoa eta likidoa ikus daitezke (Lurralde Historikoei buruzko II.1. Eranskineko A1, B1 eta G1 tauletako informazioa).

Aitorpengileen banaketan lehenengo tarteetan kontzentrazio handia ikusten da. Aitorpengileen % 53,4k aitortu zuen 18.000 eurotik beherako errenta zuela, eta likidazio-oinarri orokorraren % 25,4 biltzen dute, eta oinarri horren kuota osoaren % 22, aurreztearen likidazio-oinarriaren % 14,3, eta kuota likidoaren % 9,7.

El Cuadro IV.8 presenta para el ejercicio 2007 la distribución por tramos de renta de los importes y sus porcentajes relativos y acumulados del número de declaraciones, de las bases liquidables general y del ahorro, de las cuotas íntegra correspondientes y de la cuota líquida declaradas en el conjunto de la Comunidad Autónoma (la información correspondiente a los Territorios Históricos en el Anexo II.1 cuadros A1, B1 y G1).

La distribución de los declarantes muestra una fuerte concentración en los primeros tramos. El 53,4% de los declarantes declaró una renta inferior a 18.000 euros, y concentran el 25,4% de la base liquidable general y el 22% de la cuota íntegra de esta base, el 14,3% de la base liquidable del ahorro y el 9,7% de la cuota líquida.

Beste muturrean 66.000 euro baino gehiagoko errentak aitortu zituztenak daude. Talde horrek aitorten-kopuruaren % 3 hartzen du, likidazio-oinarri orokorraren % 11,5, oinarri horri lotutako kuota osoaren % 15,6, aurreztearen likidazio-oinarriaren % 52,3 eta oinarri horrek kuota oso lotuta eta kuota likidoaren % 27.

En el otro extremo, se sitúan aquellos que declararon rentas superiores a los 66.000 euros. Este grupo representa el 3% del número de declaraciones, el 11,5% de la base liquidable general y el 15,6% de la cuota íntegra asociada a esta base, el 52,3% de la base liquidable del ahorro y su cuota íntegra asociada y el 27% de la cuota líquida.

PEEZ. EUSKAL AE / 2007 / IRPF. C.A. EUSKADI
LIKIDAZIO-OINARRI ETA ZAMATUTAKO KUOTEN BANAKETA ERRENTA-MAILEN ARABERA / DISTRIBUCIÓN DE BASES LIQUIDADABLES Y CUOTAS GRAVADAS SEGÚN NIVELES DE RENTA

0000 €																		
ERRENTA-MAILAK (Likidazio-Oinarria) NIVELES DE RENTA (Base Liquidable) (€)	AITORPENAK DECLARACIONES			LIKIDAZIO-OINARRI OROKORRA			AURREZTEKO LIKIDAZIO- OINARRIA			OINARRI OROKORRAREN KUOTA OSOA			AURREZTEKO OINARRIAREN KTA. OSOA C. INTEGRATIA BASE AHORRO			KUOTA LIKIDOA CUOTA LIQUIDA		
	Kopurua Número	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	
																		% Metat.
Negatiboak / negatives 0 - 2.400	1.746	0,2	-15.440	-0,1	938	0,0	-6	0,0	7.981	0,1	0,0	0,0	169	0,0	22	0,0	0,0	
2.400 - 3.600	68.955	6,1	34.619	0,2	25.290	0,7	7.981	0,1	14.808	0,3	0,1	0,1	4.566	0,7	142	0,0	0,0	
3.600 - 4.800	28.578	2,5	64.319	0,3	21.270	0,6	14.808	0,3	22.997	0,4	0,8	0,8	3.831	0,6	7	0,0	0,0	
4.800 - 6.000	29.732	2,6	99.937	0,5	25.332	0,7	21	0,1	34.356	0,6	1,4	1,4	4.573	0,7	47	0,0	0,0	
6.000 - 8.400	33.299	2,9	149.379	0,7	30.547	0,9	3,0	0,0	164.745	2,9	6,2	6,2	5.508	0,9	276	0,0	0,0	
8.400 - 10.800	72.626	6,4	454.683	2,1	69.344	2,0	5,0	0,0	239.012	4,2	10,4	10,4	12.477	2,0	8.352	0,2	0,2	
10.800 - 13.200	81.851	7,2	717.332	3,4	70.939	2,1	7,1	0,1	309.133	5,4	15,8	15,8	12.771	2,1	31.028	0,8	1,0	
13.200 - 15.600	93.553	8,3	1.046.777	4,9	78.559	2,3	9,1	0,1	163.260	2,9	67,9	67,9	15.046	2,4	120.206	2,9	5,6	
15.600 - 18.000	99.399	8,8	1.345.986	6,3	83.555	2,4	11,8	0,1	320.677	5,6	52,1	52,1	15.434	2,5	168.856	4,1	9,7	
18.000 - 20.400	93.418	8,3	1.482.522	7,0	85.702	2,5	14,3	0,1	361.886	6,4	28,3	28,3	16.019	2,6	197.310	4,8	14,5	
20.400 - 22.800	82.900	7,3	1.499.909	7,1	88.974	2,6	16,9	0,1	356.916	6,3	34,6	34,6	15.875	2,6	213.285	5,2	19,7	
22.800 - 25.200	71.322	6,3	1.449.736	6,8	88.149	2,6	19,4	0,1	342.840	6,0	40,7	40,7	15.064	2,4	218.389	5,3	25,0	
25.200 - 27.600	60.803	5,4	1.374.020	6,5	83.687	2,4	21,8	0,1	330.936	5,8	46,5	46,5	14.805	2,4	221.459	5,4	30,3	
27.600 - 30.000	52.902	4,7	1.312.301	6,2	82.196	2,4	24,2	0,1	320.677	5,6	52,1	52,1	14.212	2,3	224.793	5,5	35,8	
30.000 - 32.400	46.302	4,1	1.253.434	5,9	78.913	2,3	26,5	0,1	291.362	5,1	57,3	57,3	13.202	2,1	213.232	5,2	41,0	
32.400 - 34.800	38.086	3,4	1.112.873	5,2	73.282	2,1	28,6	0,1	243.058	4,3	61,6	61,6	12.743	2,1	185.014	4,5	45,5	
34.800 - 37.200	29.228	2,6	909.592	4,3	70.771	2,1	30,7	0,1	199.078	3,5	65,1	65,1	11.980	1,9	156.544	3,8	49,3	
37.200 - 39.600	22.208	2,0	892	0,0	66.538	1,9	32,6	0,1	163.260	2,9	67,9	67,9	10.778	1,7	131.912	3,2	52,5	
39.600 - 42.000	16.975	1,5	591.005	2,8	59.754	1,7	34,4	0,1	136.479	2,4	70,3	70,3	10.135	1,6	112.969	2,7	55,3	
42.000 - 44.400	13.342	1,2	487.373	2,3	56.311	1,6	36,0	0,1	117.599	2,1	72,4	72,4	8.977	1,4	99.150	2,4	57,7	
44.400 - 46.800	10.745	1,0	413.763	2,0	49.878	1,4	37,4	0,1	105.883	1,9	74,3	74,3	8.945	1,4	91.577	2,2	59,9	
46.800 - 49.200	9.129	0,8	366.151	1,7	49.650	1,4	38,9	0,1	92.160	1,6	75,9	75,9	8.115	1,3	80.972	2,0	61,9	
49.200 - 51.600	7.479	0,7	313.576	1,5	45.080	1,3	40,2	0,1	86.033	1,5	77,4	77,4	7.562	1,2	76.946	1,9	63,7	
51.600 - 54.000	6.556	0,6	288.155	1,4	42.010	1,2	41,4	0,1	78.815	1,4	78,8	78,8	7.270	1,2	71.105	1,7	65,5	
54.000 - 56.400	5.699	0,5	260.369	1,2	40.387	1,2	42,6	0,1	73.604	1,3	80,1	80,1	7.138	1,2	67.465	1,6	67,1	
56.400 - 58.800	5.076	0,4	240.332	1,1	39.653	1,2	43,7	0,1	70.527	1,2	81,3	81,3	6.499	1,0	65.286	1,6	68,7	
58.800 - 61.200	4.575	0,4	227.409	1,1	36.058	1,0	44,8	0,1	61.967	1,1	82,4	82,4	6.143	1,0	57.942	1,4	70,1	
BEZ-Kudeaketa propioari dagokionez, foru-aldundien zerga-bilketak, 2008an zehar, kontsumo pribatuaren galdaldia nabaritu du, eta ekitaldia urte arteko tasa negatibo batekin amaitu du, % -13,3koa. Dena dela, 2007ko azkeneko zatian moteltze-zantzuak erakusten hasia zen atal hori.

En cuanto al IVA-Gestión propia, la recaudación de las Diputaciones Forales, que ya en el último tramo de 2007 comenzó a mostrar síntomas de desaceleración, a lo largo de 2008 ha acusado el frenazo del consumo privado, hasta cerrar el ejercicio con una tasa interanual del -13,3%.

BEZ (Berezko kudeaketa) / IVA (Gestión Propia)

	Diru-bilketa Recaudación °°°€	Gehikuntza Incremento	% BPG nominala PIB nominal
1998	1.505.785	14,7%	9,0%
1999	1.675.545	11,3%	8,1%
2000	1.750.892	4,5%	7,9%
2001	1.871.897	6,9%	5,5%
2002	1.891.457	1,0%	5,2%
2003	2.088.922	10,4%	6,5%
2004	2.404.733	15,1%	8,3%
2005	2.973.596	23,7%	7,5%
2006	3.464.922	16,5%	7,8%
2007	3.661.087	5,7%	7,6%
2008	3.173.284	-13,3%	3,0%

KOADROA / CUADRO IV.78

Barne-egokitzapenaren aurreko urte arteko emaitzarik onena, hain zuzen ere, Bizkaian lortu zen, nahiz eta % -3,2ko tasa izan duen. Izan ere, lurralde historiko hori da aurreko

Es en Bizkaia donde se consigue el mejor resultado interanual antes del ajuste interno, aunque se trata de una tasa del -3,2%, ya que es el único Territorio Histórico que

ekitaldiko sarrera-maila iristen duen bakarra; itzulketek, ordea, besteetan baino neurritasun handiagoz hazi dira.

Gipuzkoari dagokionez, lurralde historiko horretako zerga-bilketa % 22,8 jaitsi da, zeren eta aurreko ekitaldian baino % 10,8 gutxiago bildu baitu, batik bat barneko salmentetan, hau da, zergan aitortutako zerga-oinarrian izandako jaitsieraren isla da hori, eta, gainera, itzulketak % 13,9 gehitu dira, esportazioen igoerak eraginda, hain zuzen ere.

Arabako, azkenik, 2007ko abenduan baino % 32,8 gutxiago bildu da. Diru-sarrerak Gipuzkoan baino zertxobait gehiago jaitsi dira, eta haren gainera dago itzulketen igoera, % 16,7an gaintitzen baitituzte aurreko urtean egin ziren itzulketak. Izan ere, Arabako ekonomiak automobilgintzaren sektorearekin duen mendekotasun handiak eragin nabarmena izan du BEZaren bidezko zerga-bilketan, enpresa esanguratsu batzuen autoliquidazioak kontabilizatu baititu. Haien barneko salmentak jaitsi egin dira 2008an, bertako produkzioa nagusiki atzerriko merkatuetara bideratu baita.

Baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko 2/2007 Legean ezarritakoa eta Euskadiko Finantza Publikoetarako Kontseiluak hartutako erabakiak aplikatze aldera, hiru hilerik behin BEZetik bildutakoaren lurralde arteko egokitzapena egin da. Emaitzak, egokitzapena positiboa edo negatiboa izan den, bilketa oso edo itzulitako zenbateko gisa kontabilizatu dira, hurrenez hurren. Hona hemen bilketaren emaitza:

	2008	2007
Araba / Alava	164.999.570	63.057.872
Bizkaia	-394.423.176	-212.535.573
Gipuzkoa	229.423.606	149.477.701

Gauzak horrela, Euskal AErako emaitza bateratuak, abenduaren 31n, itzulketak gehiago izan ditu (% 12 gehitu dira, hain zuzen ere), eta hori tasa neurritsutzat har daiteke, aldagai hori orain arte eskuarki mugitu den parametroen barruan; izan ere, urrutirago joan gabe, aurreko urtea arestian aipatutakoa bikoizten zuen tasa batekin itxi zuen.

alcanza el nivel de ingresos del ejercicio precedente, mientras que las devoluciones crecen con más moderación que en el resto.

En cuanto a Gipuzkoa se refiere, su recaudación se baja en un 22,8%, ya que ha ingresado un 10,8% menos que en el ejercicio anterior, reflejo del descenso de las ventas interiores, esto es, de la base imponible declarada en el impuesto, y además las devoluciones se incrementan en un 13,9%, afectadas por el aumento de las exportaciones.

Finalmente, en Álava se ha recaudado un 32,8% menos que en diciembre de 2007. Los ingresos se bajan ligeramente más que en Gipuzkoa, a la que supera en el aumento de las devoluciones, que sobrepasan en un 16,7% a las practicadas en el ejercicio anterior. En efecto, la gran dependencia que la economía alavesa tiene con el sector de la automoción ha impactado notoriamente en su recaudación por IVA, al contabilizar las autoliquidaciones de empresas significativas cuyas ventas interiores han bajado en 2008, y cuya producción se ha destinado mayoritariamente a mercados extranjeros.

En aplicación de lo previsto en la Ley 2/2007, de distribución de recursos y determinación de las aportaciones, y de los acuerdos adoptados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, trimestralmente se ha practicado el ajuste interterritorial a la recaudación por IVA. Los importes resultantes se han contabilizado como recaudación íntegra o como devolución, según que el ajuste haya sido positivo o negativo respectivamente, con el resultado siguiente:

Así las cosas, el resultado consolidado para la C.A. de Euskadi a 31 de diciembre registra unas devoluciones que han aumentado en un 12%, lo que puede considerarse como una tasa moderada dentro de los parámetros entre los que habitualmente se ha situado esta variable, que sin ir más lejos cerraba el ejercicio anterior con una tasa que duplicaba la anteriormente citada.

Kezkagarriagoa da sarrera osoek bizi izan duten jaitsiera, zeren eta zerga honen ibilbidean lehen aldiz beheratu egin baitira urte arteko aldian, eta % 13,3ko tasa negatiboa eman dute bilketa garbirako.

Más preocupante es la caída vivida por los ingresos íntegros, que por primera vez en la trayectoria de este impuesto decrecen interanualmente, arrojando una tasa negativa del 13,3% para la recaudación neta

BALIO ERANTSIAREN ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO DIRU-BILKETAREN BILAKAERA / EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN			
	2008	2007	% 08/07
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Recaudación íntegra y residuos	5.046.705	5.334.488	-5,4
Itzulketak / devoluciones	-1.873.421	-1.673.401	12,0
Diru-bilketa likidua / Recaudación líquida	3.173.284	3.661.087	-13,3

KOADROA / CUADRO IV.79

Horrela, bada, 2008ko itxieran narriadura esanguratsu da izan da BEZaren bidezko bilketan; izan ere, bilketa horrek abisu serio bat bidali zuen aurreko ekitaldian, azkeneko urteetan irauten ari zen hedapen-ildo luzea geldiarazi zenean; izan ere, ordu arte zerga-sarreraren artean zerga hori zen dinamikoenetarikoa, eta bat egiten zuen, gainera, zeharkako zergak izaten ari ziren hedapenarekin, barne-eskariaren indarrak bultzatuta, batetik, eta atxikipen-tauletan beheraka izan diren etengabeko aldaketen eraginez errenta eskuragarriak gora egin izanaren ondorioz, bestetik. Horren eraginez, azken ekitaldietan bilketa osoaren gorakada nabarmena izaten aro zen, eta itzulitako zenbatekoek hazten jarraitu zuten, erritmo apalagoan hazi arren.

Dena dela, egoera hori aldatzen hasi zen 2007an, eta areagotu egin da 2008ko ekuatoretik aurrera, ekonomiaren hazkunde-erritmoaren eta kontsumo pribatuaren uzkurdurak eraginda, faktore erabakitzaileak baitira zeharkako zergapetzearen bilketaren bilakaeran, oro har, eta BEZarenean, bereziki.

Izan ere, sarrera gordinak % 5etik gora beheratu dira urte arteko aldian, kontsumo pribatuaren hazkundearen uzkurdurak eraginda, hainbat elementu tarteko direla, hala nola familien zorpetzea, konfiantza txikiagoa etorkizuneko egoera ekonomikoa eta enpleguaren dinamismoa txikiagoa.

Foru-aldundiek, gainera, gehitu egin dute atzerapenen emate-kopurua, enpresa zergapekodunen eskarien orokortzeari

Así pues, al cierre de 2008 se registra un significativo deterioro en la recaudación por IVA, que ya en el ejercicio anterior lanzaba un serio aviso al ver frenada la fuerte senda expansiva que estaba manteniendo en los últimos años, que convertía a este impuesto en uno de los componentes más dinámicos de los ingresos tributarios, uniéndose así a la expansión general que estaba experimentado la imposición indirecta, impulsada por la fortaleza de la demanda interna y el aumento de la renta disponible por los continuos cambios a la baja de las tablas de retenciones. Esto estaba provocando una saludable expansión de la recaudación íntegra en los últimos ejercicios, mientras que las devoluciones continuaban creciendo, aunque a un ritmo inferior.

Ahora bien, esta situación empieza a cambiar en 2007, y se agudiza a partir del ecuador de 2008, al acusar la contracción del ritmo de crecimiento de la economía y del consumo privado, factores determinantes de la evolución recaudatoria de la imposición indirecta en general y del IVA en particular.

En efecto, los ingresos brutos han decrecido interanualmente en más de un 5%, al acusar la contracción del crecimiento del consumo privado, incidido por elementos tales como el endeudamiento de las familias, la menor confianza en la situación económica futura y el menor dinamismo del empleo.

Además, las Diputaciones Forales han aumentado la concesión de aplazamientos, en respuesta a la generalización de peticiones de

erantzunez.

Gauzatutako itzulketek, bestalde, gorantz jarraitu dute, eta hori bat dator atzerrirako salmenten bilakaera hedakorrekin eta foru-aldundien aldetik egin diren itzulketen epeak laburtzearekin.

Horri guztiari erantsi behar zaio nolako eragina izan duen, 2008ko urtarriletik aurrera, BEZaren zerga-bateratzeko araubide berezi berria indarrean sartzeak zerga-bilketan. Araubide berria borondatezko aplikaziokoa da erakunde-talde bat osatzen duten enpresentzat, baina haietako ezein ez daiteke izan aldi berean talde batekoa baino gehiagokoa.

Logikoa denez, aukerako araubide bat izanik, enpresek beren interesen arabera aukeratuko zuten bata edo bestea, eta horrek, kasurik gehienetan, zerga-sarrera txikiago batzuk eragingo ditu.

Kupoaren Batzorde Mistoak onetsitako prozeduraren arabera, haxe da Estatuko Zerga Agentziarekin hiru hilean behin egiten den BEZ Egokitzapenaren emaitza:

las empresas contribuyentes.

Por otra parte, las devoluciones practicadas han continuado al alza, en consonancia con la evolución expansiva de las ventas al exterior y el acortamiento de los plazos de devoluciones por parte de las Diputaciones Forales.

A todo esto hay que añadir la incidencia que haya tenido en la recaudación la entrada en vigor, a partir del 1 de enero de 2008, del nuevo régimen especial de consolidación fiscal del IVA, de aplicación voluntaria para las empresas que formen un grupo de entidades, sin que ninguna de ellas pueda formar parte simultáneamente de más de un grupo.

Lógicamente, al tratarse de un régimen opcional, las empresas habrán optado por el mismo de acuerdo con sus propios intereses y esto, en la mayoría de los casos, habrá redundado en unos menores ingresos fiscales.

De acuerdo con el procedimiento aprobado por la Comisión Mixta de Cupo, éste es el resultado del Ajuste IVA realizado trimestralmente con la Agencia Tributaria:

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREKIN BEZ EGOKITZAPENA AJUSTE IVA CON LA ADMINISTRACIÓN DEL ESTADO			
	Inportazioak Importaciones	Berne eragiketak Op. Interiores	Guztira Total
2007ko Likidazioa / Liquidación 2007	37.029	-11.634	25.395
2008ko urtarrila-martxo / Enero-marzo 2008	126.827	167.653	294.480
2008ko apirila-ekaina / Abril-junio 2008	160.415	89.501	249.916
2008ko uztaila-iraila / Julio-septiembre 2008	169.550	20.902	190.452
2008ko urria-abendua / Octubre-diciembre 2008	150.647	181.312	331.959
GUZTIRA / TOTAL	644.468	447.734	1.092.202

000 €

KOADROA / CUADRO IV.80

Sartutako eta foru-aldundiek kontabilizatutako BEZ Egokitzapenaren ondoriozko bilketa horrek, laugarren urtez jarraian, beherakada izan du, nahiz eta oraingoan negatibotasunik handiena izan duen, % -7,2koa, alegia.

Hori oso ekitaldi gutxitan gertatu da, eta 2008ko azaroan BEZ Egokitzapena osatzen

Esta recaudación por el Ajuste IVA ingresado y contabilizado por las Diputaciones Forales supone por cuarto año consecutivo un decremento respecto a la del ejercicio precedente, si bien en esta ocasión alcanza su más elevada negatividad, el 7,2%.

Esto ha sucedido en muy pocos ejercicios y es consecuencia directa de la evolución de la

zuten kontzeptuengatik kontabilizatutako Estatuko bilketaren bilakaeraren ondorio zuzena izan da, eta abendura estrapolatuz, laugarren hiruhilekoko egokitzapena kalkulatzeko oinarri gisa balio du.

Lehenik eta behin, 2007ko likidazioaren doiketaren zenbateko handiagoa, 2006ko likidazioaren emaitza negatiboaren aldean, berdindu egiten du, bere osotasunean, itxi berri den ekitaldian zehar gauzatutako doiketaren bilakaera negatiboak, ekitaldi horretan Estatuko Zerga Agentziak BEZaren guztizkora egindako bilketa % 13,7 beheratu baita.

BEZ-Inportazioak zergan izandako bilketak, bestalde, martxoan gorakada nabarmena izan zuen, eta horrela islatzen da energia-inportazioen oraintsuko susperraldian; izan ere, % 8tik hurbil dagoen urtetik urterako tasan kokatu zen zerga-atal hori. Ordutik aurrera, bilketa-erritmoaren moteltzea etengabekoa izan da, eta horretan eragina izan du inportazioen ahuleziak; eta, azkenean, azaroa -% 0,4ko tasarekin itxi baita.

Garrantzitsuagoak dira BEZ-Barne eragiketak zergan dauden zenbaki gorriak. Horretan eragina izan dute erakunde-taldeen zerga-araubide berriaren ondorioz bilketan izan den gutxitzeak, bai eta ahulezia ekonomikoak eta higiezinaren eta eraikuntzaren sektoreetan izandako geldialdiak ere, eta eskatutako gerorapenek ere.

Horrela, Estatuko Zerga Agentziak barne-eragiketengatik bilketa garbi negatiboari dagokionez izandako urte arteko aldakuntza-tasa % -16,3koa izan da. Tasa horretan hobekuntza izan da 2007ari dagokionez, itzulketek gora egin dutelako apur bat, % 4,1; izan ere, 2007ko itxieran % 27tik gora gehitu ziren.

2008ko azaroan Estatuko Ogasunak BEZaren bidez egindako zerga-bilketaren % 92 gauzatu du, hau da, aurreko ekitaldian baino 5,5 puntu gutxiago, eta horrek, foru-aldundien 2008ko amaierarako, sarrera txikiago bat dakar, 72,7 milioi euro ingurukoa, hain zuzen ere.

4. Fabrikazioko Zerga Bereziak

Foru-aldundiek, 2008an, alkoholaren, hidrokarburoen, garagardoaren eta

recaudación estatal contabilizada por los conceptos componentes del Ajuste IVA al mes de noviembre de 2008, que, extrapolada a diciembre, sirve de base para el cálculo del ajuste correspondiente al cuarto trimestre.

En primer lugar, el mayor importe del Ajuste de la liquidación de 2007, frente al resultado negativo de la liquidación de 2006, se ve compensado en su totalidad por la evolución negativa del Ajuste practicado a lo largo del recién cerrado ejercicio, en el que la recaudación realizada por la Agencia Tributaria para el total del IVA ha decrecido en un 13,7%.

La recaudación realizada por el IVA-Importaciones, que en el mes de marzo experimentaba un fuerte repunte, reflejando así la reciente recuperación de las importaciones energéticas hasta situarse en una tasa interanual próxima al 8%, a partir de entonces ha soportado una constante ralentización de su ritmo recaudatorio, incidida por la atonía de las importaciones, hasta cerrar el mes de noviembre con una tasa del -0,4%.

De mayor peso son los números rojos que arrastra la recaudación por IVA-Operaciones interiores, afectada por la pérdida de recaudación inducida por el nuevo régimen fiscal de grupos de entidades, así como la atonía económica y el parón soportado en los sectores inmobiliario y de construcción, y por los mayores aplazamientos solicitados.

Esto arroja para la Agencia Tributaria una tasa de variación interanual en la recaudación neta negativa por las operaciones interiores del 16,3%, tasa que resulta favorecida por el moderado crecimiento de las devoluciones, el 4,1%, si bien sobre un año como 2007 al cierre del cual se habían incrementado en más de un 27%.

Al mes de noviembre de 2008 la Hacienda estatal ha formalizado el 92% de la recaudación realizada por IVA, esto es, 5,5 puntos menos que en el ejercicio anterior, lo que supone para el cierre 2008 de las Diputaciones Forales un menor ingreso próximo a los 72,7 millones de euros.

4. Impuestos Especiales de fabricación

En 2008 las Diputaciones Forales han ingresado en gestión propia por Alcohol,

tabakoaren bidez ia 1.425 milioi euro jaso dituzte guztira, kudeaketa propioan, hau da, 8 milioi euro, aurreko urteko zerga-bilketaren azpitik, eta horrek % 0,6ko tasa negatiboa izan du zerga horien multzorako. Zerga horiek, beste urte batez, ez dute izan aldaketarik zerga-mailan, alde batera utzita, tabakoaren kasuan Europako Batzordearen aldetik maila hori igoarazteko egindako proposamenak, estatu kide guztien artean prezioak bateratzea errazteko eta tabakoaren kontsumoa murrizteko asmoz. Itxieran gertatu izan den legez, ekitaldian zehar bilketa-bilakaera oso desberdinak izan dituzte zerga horiek.

Horrela, azken hil hauetan, zerga-bilketa munta txikieneko zerga berezia, garagardoaren kontsumoa zergapetzen duena, izan da portaera onena izan duena, bi digituko bilketa-igoera izan baititu, eta ekitaldiaren itxieran % 15eko urte arteko tasa iritsi du.

Askoz neurritsuagoa da Tabako-moten gaineko Zerga Berezian izandako bilketa-gehikuntza, % 3,6. Tasa hori askoz handiagoa izan da ekitaldiko lehenengo erdian, eta tasa horrek, alde batetik, zigarreta-paketearen batez besteko prezioen igoera (% 4tik gora urtarritetik) eta tabakoaren akaparamenduaren eragina, eta, bestetik, prezio baxuko bariatateen pisu hazkorra eta osasun-erakundeetatik tabakoaren kontsumoaren arriskuei buruz egiten den publizitatea.

Hidrokarburoak zergapetzen dituen zerga bereziari dagokionez, zerga horretan gehitu egin da batez besteko bilketa urteko lehenengo hiletan (ehuneko lau puntutik gora), eta ekitaldiko ekuatoretik aurrera modu nabarmenagoan jasan du kontsumoak erakutsitako indar txikia, eta abenduaren 31n, horrenbestez, % -1,9ko urte arteko tasa izan du.

Alkoholaren kontsumoa zergapetzen duen zerga bereziak ere bilketan izan duen jaitsiera batekin ixten du urte (% 5,2koa).

Azken emaitza hau da: 1997an foru-aldundiak zerga hauek kudeatzen hasi zirenetik, guztizko zerga-bilketa beheratu egin da lehen aldiz, 2008ko itxieran.

Hidrocarburos, Cerveza y Tabaco casi 1.425 millones de euros, esto es, 8 millones de euros por debajo de la recaudación del año anterior, lo que representa una tasa negativa del 0,6% para el conjunto de estos impuestos, que continúan una año más sin cambios en su fiscalidad, a pesar de las propuestas para elevarla, en el caso del tabaco, por parte de la Comisión Europea, con el fin de facilitar la convergencia de precios entre los diferentes Estados miembros, y de reducir su consumo. Al igual que sucede al cierre, a lo largo del ejercicio estos impuestos han seguido trayectorias recaudatorias muy diferentes.

Así, en los últimos meses es el impuesto especial de menor entidad recaudatoria, el que grava el consumo de cerveza, el que mejor ha estado comportándose, con aumentos recaudatorios de dos dígitos, hasta alcanzar al cierre del ejercicio una tasa interanual del 15%.

Mucho más moderado es el incremento recaudatorio registrado en el Impuesto Especial sobre las labores del Tabaco, el 3,6%, tasa que ha sido muy superior en la primera mitad del ejercicio, y que acusa, por una parte, el impacto de la subida de los precios medios de la cajetilla en algo más del 4% desde enero y del acaparamiento de tabaco, y por otra, la incidencia del peso creciente de las variedades de bajo precio y de la publicidad de los riesgos de su consumo desde las instituciones sanitarias.

En cuanto al impuesto especial que grava los hidrocarburos, que en los primeros meses del año ha visto incrementarse su recaudación como media en más de cuatro puntos porcentuales, a partir del ecuador del ejercicio ha acusado más intensamente el poco vigor mostrado por el consumo, hasta registrar al 31 de diciembre una tasa interanual del -1,9%.

También el impuesto especial que grava el consumo de alcohol cierra el año con un descenso en su recaudación del 5,2%.

El resultado final es que desde que en 1997 las Diputaciones Forales comenzaron a gestionar estos impuestos, su recaudación total por primera vez decrece al cierre de 2008.

Zerga horiek, Elektrizitatearen gaineko Zerga Bereziarekin eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergarekin batera, hiru hilez behin bilketa oso doitzen dira foru-aldundien artean, 2008ko koefiziente horizontalen arabera, eta aldundiek zerga bakoitzaren kudeaketa propioaren bitartez bildutako zenbatekoaren barruan ateratzen diren egokitzapenak kontabilizatzen dituzte, bilketa oso edo itzulketa moduan, honako emaitza honekin:

Estos impuestos junto al Impuesto Especial sobre la Electricidad y el Impuesto sobre Ventas Minoristas de determinados Hidrocarburos han sido ajustados trimestralmente, según los coeficientes horizontales de 2008, entre las Diputaciones Forales, que contabilizan estos ajustes dentro de la recaudación por gestión propia de cada impuesto, como recaudación íntegra o como devolución, con el resultado siguiente:

Fabrikazio zerga bereziak / 2008 / Impuestos Especiales de Fabricación

000 €

	ARABA ALAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A. EUSKADI
Berezko kudeaketa / Gestión propia				
Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak / Alc., Deriv. e Intern.	1.555	242	13.206	15.003
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	12.575	16.714	23.779	53.068
Tabako-motak / Labores del Tabaco	40.854	144.915	167.954	353.723
Garagardoa / Cerveza	482	854	3.843	5.179
Elektrizitatea / Electricidad	12.238	34.052	26.227	72.517
Zenbait Hidrok.ren txikiz. salment.g/ zerga l. s/ Ventas Minoristas determinados Hidrocarburos	155.098	895.643	8	1.050.749
Berezko kudeaketa, Guztira / Total Gestión propia	222.802	1.092.420	235.017	1.550.239
Egokitzapenak / Ajustes				
apirila / abril	19.463	-95.821	76.358	
uztaila / julio	10.774	-87.184	76.410	
urria / octubre	9.229	-74.633	65.404	
abendua / diciembre	493	-58.111	57.614	
Egokitzapenak Guztira / Total Ajustes	39.959	-315.749	275.786	
GUZTIRA / TOTAL	262.761	776.671	510.803	1.550.239
Portzentajezko egitura				
Distribución porcentual	16,95%	50,10%	32,95%	

KOADROA / CUADRO IV.81

Estatuko Administrazioarekiko Egokitzapenak hiru hilez behin aplikatu dira, eta 123 milioi euroko zenbateko negatiboa izan da emaitza eta 2008an indarrean zeuden koefiziente horizontalen arabera banatu da foru-aldundien artean:

Los Ajustes con la Administración del Estado se han practicado trimestralmente, resultando un importe negativo de 123 millones de euros, repartido entre las Diputaciones Forales según los coeficientes horizontales vigentes en 2008:

Fabrikazio zerga bereziak / 2008 /Impuestos Especiales de Fabricación

000 €

	Alkohola Alcohol	Hidrokarb. Hidrocarb.	Tabakoa Tabaco	Garagard. Cerveza	Guztira Total
2007ko Likidazioa / Liquidación 2007	11.682	-28.224	-17.996	3.057	-31.481
2008ko urtarrila-martxoa / Enero-marzo 2008	10.810	-31.861	5.344	2.693	-13.014
2008ko apirila-ekaina / Abril-junio 2008	10.759	-46.990	5.048	3.298	-27.885
2008ko uztaila-iraila / Julio-septiembre 2008	8.533	-47.877	14.874	4.316	-20.154
2008ko urria-abendua / Octubre-diciembre 2008	7.389	-45.256	3.116	3.781	-30.970
GUZTIRA / TOTAL	49.173	-200.208	10.386	17.145	-123.504

KOADROA / CUADRO IV.82

Azken emaitzak okerragotze handia ekarri du, 2007an kontabilizatutako -107 milioi euroen aldean, eta hori, hain zuzen ere, aurreko ekitaldiko likidazioaren negatibotasun handiagoaren ondorio ez ezik, Tabako-moten gaineko Zerga Berezia 2008an zehar iritsi diren egokitzapen txarragoen ondorio ere bada, eta 37 milioi €-tik gorako egokitzapen txarrago horren ehuneko berrogeita hamar bakarrik konpentsatu ahal izan da, beste zergetan lortutako emaitza hobe bidez.

Horrela, bada, BEZaren egokitzapenean adierazi den bezala, zerga hauetan ere Estatuko Zerga Agentziak formalizatuta zeukan 2007ko azaroan egindako bilketa osoaren ia % 100; beraz, 2007ko ekitaldiko likidazioa baino askoz negatiboagoa izan da bilketa.

2008ko zerga-bilketari estatalari dagokionez, azaroan, formalizazio-maila aldatu egiten da (bederatzi minutu inguru) aurreko urteko hilabete beretan lortua zen kontabilizaziotik, eta zerga horien guztien bilketa-bilakaera negatiboari lotuta, foru-aldundientzat, 2008ko itxieran, negatibotasun handiagoa erakusten du, 19,7 milioi euroen ingurukoa, hain zuzen ere.

Ekitaldiaren zatirik handiengan gertatu denez, azaroan, Estatuko Ogasunak zerga horietatik, Tabako-motaren gaineko Zerga Berezia alde batera utzita, aurreko urtean baino gutxiago jaso du, horrela, bada, batez beste % -1,3ko tasara iritsi da, hau da, foru-aldundiek beren kudeaketan lortutakoa baino apur bat negatiboagoa izan da.

El resultado supone un fuerte empeoramiento respecto a los -107 millones de euros contabilizados en 2007, derivado no sólo de la mayor negatividad resultante en la liquidación del ejercicio anterior, sino también del peor ajuste al que se ha llegado a lo largo de 2008 en la recaudación por el Impuesto Especial sobre las labores del Tabaco, cuyo menor ajuste de más de 37 millones de euros sólo ha podido compensarse en un cincuenta por ciento con los mejores resultados que arrojan el resto de estos tributos.

En efecto, al igual que se ha indicado en el Ajuste IVA, también en estos impuestos la Agencia Tributaria había formalizado a noviembre de 2007 casi el 100% de la recaudación realizada, con lo que resultaba una liquidación del ejercicio de 2007 altamente negativa.

En cuanto a la recaudación estatal en 2008, al mes de noviembre el grado de formalización difiere en torno a nueve puntos de la contabilización que se había alcanzado en el mismo mes del año anterior, lo que unido a la negativa evolución recaudatoria de todos estos impuestos, arroja para las Diputaciones Forales al cierre de 2008 una mayor negatividad próxima a los 19,7 millones de euros.

Tal y como ha sucedido en la mayor parte del ejercicio, al mes de noviembre la Hacienda estatal ha recaudado por estos impuestos, con la excepción del Impuesto Especial sobre las labores del Tabaco, menos que en el año anterior, por lo que en su conjunto llega a una tasa media del -1,3%, esto es, un poco más negativa que la lograda por las Diputaciones Forales en su gestión propia.

5. Bestelako zergak

Bestelako zergei dagokionez, zuzeneko zergen aldeko bidea neutralizatuta geratzen da, zeharkako zergen negatibotasunagatik, eta, hori dela eta, bere osotasunean, % 15,8ko urte arteko tasa negatiboa izan dute, eta eten egin da horrela azken urteetako ildo hazkorra.

5. Otros tributos

En cuanto al resto de los tributos, la favorable marcha de los directos se ve neutralizada por la alta negatividad de algunos indirectos, por lo que en su conjunto se anotan una tasa interanual negativa del 15,8%, interrumpiendo así la senda creciente de los últimos años.

BESTELAKO ZERGA / OTROS TRIBUTOS

	Diru-bilketa Recaudación °°°€	Gehikuntza Incremento
1998	549.338	29,6%
1999	626.337	14,0%
2000	757.765	21,0%
2001	680.975	-10,1%
2002	729.188	7,1%
2003	773.915	6,1%
2004	837.463	8,2%
2005	946.865	13,1%
2006	1.076.722	13,7%
2007	1.240.077	15,2%
2008	1.044.575	-15,8%

KOADROA / CUADRO IV.83

Hauexek dira zerga hauen bilketa-portaerari buruzko daturik aipagarrienak. Oro har, guztizko zerga-bilketaren % 8,1 hartzen dute zerga horiek ekitaldiaren itxieran:

Urte arteko tasarik altuena, zerga itunduen panelaren barruan, Ondarearen gaineko Zergak lortu duena izan da, ekitaldia % 17,5eko igoera batekin itxi baitu, eta horrela jarraitu egin du 2005eko ekitaldian berrasi zen goranzko ildoan, eta Euskal AERen multzorako 181 milioi euroren zerga-bilketaraino iritsi da, zergaren ibilbideko bilketa-mailarik altuena, hain zuzen ere, eta hori, neurri handi batean, Espainiako burtsan, 2007ko itxieran, bosgarren urtez jarraian lortu den emaitza onaren isla da.

Aipatzekoa da, ondoren, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren portaera, ekitaldian zehar modu hazkorrean bilakatzen aritu baita zerga hori, eta hori, hain zuzen ere, ez da beti gertatzen, zerga horren izaera aleatorioa kontuan izanda. 2008ko itxierara, % 7,4ko urteko arteko gehikuntza batekin

Estas son las notas más relevantes del comportamiento recaudatorio de estos tributos, que en su conjunto representan el 8,1% de la recaudación total al cierre del ejercicio:

La tasa interanual más elevada dentro de la panel de tributos concertados es la alcanzada por el Impuesto sobre el Patrimonio, que ha cerrado el ejercicio con un aumento del 17,5%, continuando así con la senda ascendente reiniciada en el ejercicio de 2005, hasta colocarse para el conjunto de la C.A. de Euskadi en una recaudación de 181 millones de euros, el nivel recaudatorio más alto de su trayectoria, lo que es en gran parte el reflejo del buen resultado obtenido por quinto año consecutivo al cierre de 2007 en la bolsa española.

Destaca, a continuación, el comportamiento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, que a lo largo del ejercicio ha estado evolucionando de forma creciente, lo que no siempre ocurre, dado el carácter aleatorio de su hecho imponible y que ha llegado al cierre de 2008 con un incremento interanual del

iritsi da zerga hori, eta zergaren bilketa zerga horren bizitzan izandako kopururik altuenera iritsi da.

2008ko itxieran, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren bilketa ere gehitu egin da hiru urteko aldian, hiru lurralde historikoetan, eta Euskal AErako % 6,7ko tasa eman du zerga horrek, baina gehikuntza horrek moteltze handia ekarri du, zerga horrek berak azken urteotan izan duen ildo hedakor bikainaren aldean.

Bestalde, bakarrik bi hamarren txikiagoa da (% 6,5) Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezian lortu den urte arteko gehikuntza. Zerga horren bilketa foru-aldundien artean banatzen da, ekitaldiko koefiziente horizontalen arabera, eta moteldu egin da, urteko lehenengo hilabeteen aldean, hil horietan bi aldiz gorantz berrikusi baita tarifa elektrikoa.

Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergak ere lurraldeen artean banatzen du bilketa, zerga horrek bilakaera positiboa izan baitu urte osoan zehar, nahiz eta beheranzko joera motel bat izan duen, eta abenduaren 31ra % 2,1eko urte arteko igoera batekin iritsi da.

Negatiboa da, era berean, Aseguruen Primen gaineko Zergaren bilketan izandako emaitza. Zerga hori Bizkaiko Lurralde Historikoan baino ez da hazi, eta urtea 2007ko abendukoaren aldean zertxobait azpitik dagoen zenbateko bateratu batekin itxi du.

Garraibide Jakin batzuen gaineko Zergaren bidezko zerga-bilketak ere urte arteko jaitiera handi bat izan du 2008an zehar, eta ekitaldia % 36,1eko tasa negatibo batekin itxi du. Hiru foru-aldundiak kopuru horren inguruan mugitu dira; izan ere, esan behar da ez direla batere eregugarriak zerga horren bilketa-ibilbidean eragina izan dezaketen gorabeherak.

- Urtearen hasieran indarrean sartu zen zergaren tarifen berregituratzea, eta zerga beheratu egin zen gutxien kutsatzen zuten ibilgailuentzat, eta horrek salto bat eragin zuen zilindrada handieneko ibilgailuen salmentan, aurreko ekitaldiaren azken zatian.

7,4%, situando su recaudación en la cifra más elevada registrada en la vida de este impuesto.

Al cierre de 2008, también la recaudación del Impuesto sobre la Renta de no Residentes se incrementa interanualmente en los tres Territorios Históricos, arrojando para la C.A. de Euskadi una tasa del 6,7%, lo que supone una fuerte desaceleración respecto a la excelente senda expansiva mantenida por este impuesto en los últimos años.

Sólo dos décimas inferior, el 6,5%, es el incremento interanual alcanzado en el Impuesto Especial sobre la Electricidad, cuya recaudación, que se distribuye entre las Diputaciones Forales según los coeficientes horizontales del ejercicio, se ha desacelerado respecto a los primeros meses del año, en los que la tarifa eléctrica ha sido revisada al alza en dos ocasiones.

También el Impuesto especial sobre Ventas Minoristas de determinados Hidrocarburos distribuye territorialmente su recaudación, que ha estado evolucionando positivamente a lo largo de todo el año, aunque con un lento goteo a la baja, hasta llegar al 31 de diciembre con un aumento interanual del 2,1%.

Negativo es el resultado registrado en la recaudación del Impuesto sobre Primas de Seguros, que después de crecer solamente en el Territorio Histórico de Bizkaia, cierra el año con un importe consolidado ligeramente inferior al de diciembre de 2007.

La recaudación por el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte ha estado registrando a lo largo de 2008 una fuerte caída interanual, hasta cerrar el ejercicio con una tasa negativa del 36,1%, en cuyo entorno han evolucionado las tres Diputaciones Forales, y es que no son nada halagüeñas las circunstancias que pueden influir en la marcha recaudatoria de este impuesto.

- A principios de año entraba en vigor una reestructuración de las tarifas del impuesto, que se rebajaba para los vehículos menos contaminantes, lo que provocó un salto de las ventas de los vehículos de mayor cilindrada en el último tramo de ejercicio anterior.

- 2008 historiako ekitaldirik txarrena izan da autogintzaren sektorerako, eta, hori dela eta, autoen salmentak % 25 jaitsi dira Euskal AEn. Horretan lagundu dute finantza-erakundeek kreditu-murrizketak, lan-merkatuaren bultzada txikiagoak eta ekonomiaren etorkizunean dagoen konfiantza galtzeak.
- Prever Plana desagertu ondoren, urtearen erdialdean Vive Plana ezarri zen, baina ez zenez batere eragingarria, plan hori hobetu egin zen hilabete batzuk geroago, eta 10 urtera jaitsi zen txikitu beharreko ereduaren antzintasuna.

Are handiagoa da Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak jasan duen bilketa-jaitsiera, oro har aurreko ekitaldian % 40,7 gutxiago bildu baitu zerga horrek, hau da, zerga itunduen multzoak lortu duten emaitzarik txarrena.

Bi zerga-figurek beheranzko bilakaera izan dute, eta modu nahiko antzekoan hiru lurralde historikoetan, eta ekitaldi itxi berriaren atzerapen handi batekin, 2002an lortu zuten bilketa-mailara itzuli dira.

Logikoa denez, zerga horren bilketa-bilakaera bi faktorek eraginda dago: alde batetik, aurreko urtean egindako sozietate-eragiketa handi batzuetatik zetozen aparteko diru-sarrerak (horrek ez du kontrapartidarik izan 2008an); eta, bestetik eta batez ere, bigarren eskuko etxebizitzaren salmentan izandako beherakada, % 30 ingurukoa, bai eta etxebizitzaren prezioen izandako jaitsiera ere.

Jokoaren tasaren zerga-bilketa berriro jaitsi da, bosgarren urtez jarraian, eta kasu honetan % 8,0 jaitsi da, eta tasa horren osagai guztiak (hau da, Bingoak, Makinak eta Kasinoak, eta bestelakoak) beherantz bilakatu baitira hiru lurralde historikoetan, nahiz eta azken osagaia bilketa-munta txikiagokoa izan.

c. Diru-bilketaren bilakaera

Lehenengo Ekonomia Ituna 1981eko maiatzean onartu zen, eta 20 urteko indarraldia zuen. 2002an, 12/2002 Legeak gaur egun indarrean dagoen Ekonomia Ituna onartu zuen.

Beraz, 1981etik aurrera, foru-aldundiek beren zerga arloko eskumenak egikaritu zituzten,

- 2008 ha sido el peor ejercicio de la historia para el sector automovilístico, con un derrumbe del 25% en las ventas de coches en la C.A. de Euskadi. A ello ha colaborado la restricción crediticia de las entidades financieras, el menor empuje del mercado laboral y la pérdida de confianza en el futuro de la economía.
- Tras la desaparición del Plan Prever, a mediados de año se implantaba el Plan Vive, que ante su nula eficacia era mejorado unos meses después, reduciendo a 10 años la antigüedad de los modelos a desgazar.

Mayor aún es la caída recaudatoria soportada por el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, que en su conjunto han recaudado un 40,7% menos que en el ejercicio anterior, el peor resultado del conjunto de tributos concertados.

Las dos figuras tributarias evolucionan a la baja y de modo bastante similar en los tres Territorios Históricos, y con el fuerte retroceso del recién cerrado ejercicio vuelven al nivel recaudatorio que alcanzaban en 2002.

Lógicamente, la evolución recaudatoria de este Impuesto está incidida por los ingresos extraordinarios provenientes de importantes operaciones societarias realizadas en el año anterior sin contrapartida en 2008, pero, y fundamentalmente, por el derrumbe de la venta de viviendas de segunda mano, en torno al 30%, así como por la bajada en el precio de las mismas.

La recaudación de la Tasa de Juego vuelve a caer por quinto año consecutivo, en esta ocasión en un 8,0%, después de evolucionar a la baja en los tres Territorios Históricos todos los componentes de esta Tasa, esto es, Bingo, Máquinas y Casinos y otros, este último de mucho menor entidad recaudatoria.


c. Evolución de la recaudación

El primer Concierto Económico se aprobó en mayo de 1981, con una vigencia de 20 años. En 2002, la Ley 12/2002 aprueba el Concierto Económico vigente en la actualidad.

Por tanto, a partir de 1981, las Diputaciones Forales ejercen sus competencias tributarias y

eta 1982an lehen aldiz bildu zituzten zergak urte oso batean. Zerga itunduetatik bildutako diru-kopurua, 1997an zerga itundu berriak aintzat hartuta, hamasei aldiz handiagoa egin da 1982tik 2008ra bitartean, eta datu horrek argi adierazten du zer dimentsio kuantitatibo duen Ekonomia Itunak.

1982 fue el primer año en el que recaudaron durante un año completo. La recaudación por tributos concertados, una vez incluidos los nuevos tributos concertados en 1997, se ha multiplicado por más de dieciséis entre 1982 y 2008, lo que da una idea de la significación cuantitativa del Concierto Económico.



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.32

Denbora-bitarte horretan, bildutako diru-kopuruak gora egin du etengabe, salbuespen bakarrarekin; izan ere, 1994an, urtetik urterako bilakaera negatiboa izan zen, ehuneko txiki batean. 2008. urtean, ordea, behera egin du, eta % 6,8ko beherakada izan du bilketan, aurreko urtearen aldean.

Durante este período la recaudación no había cesado de incrementarse, salvo en 1994 cuando por vez primera se registró una evolución interanual ligeramente negativa, hasta el año 2008 con una bajada recaudatoria del 6,8% respecto al año anterior.

Ondorengo lerroetan aipatuko dira zergen bilketak aldi horretan izan dituen bilakaeraren mugarriak.

Varios son los hitos que han incidido en la recaudación tributaria a lo largo del período y que a continuación se comentan.

Bi hauek izan dira, funtsean, diru-bilketa horren bilakaeraren eragile nagusiak: zerga-araudian egin diren arau-alaketak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera ekonomikoaren bilakaera.

La evolución de la recaudación durante todos estos años es consecuencia fundamentalmente de los cambios normativos con incidencia tributaria y de la evolución de la situación económica en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak, 1975-1985 aldian, geldialdi bat izan zuen. hala, barne-produktu gordinaren urtetik urterako hazkunde metatua zertxobait negatiboa zen, eta behera egin zuen, nabarmen, enplegu-kopuruak, batik bat, industria-sektorean. 1985etik aurrera, susperraldi bat izan zen, industria-jarduerek hazkunde handia izan zuten eta eraikuntza-

En el período 1975-1985 la economía vasca vivió de una década de estancamiento, con un crecimiento acumulativo anual del PIB ligeramente negativo y un fuerte descenso en el número de empleos, particularmente en el sector industrial. A partir de 1985 comenzó la recuperación con un espectacular crecimiento industrial y unas elevadas tasas de crecimiento en el sector de la construcción,

sektoreko hazkunde-tasek gora egin zuten, nabarmen. Horrekin batera, aipatzekoak dira sektore publikoak prozesu hori guztia bultzatzeko egin zuen ahalegina, eta kontsumoak nahiz inbertsioek izandako igoera handiak. Susperraldi horren gailurrak 1988ko eta 1989ko ekitaldietan ukitu ziren, eta, hortik aurrera, hazkunde ekonomikoaren erritmoak behera egin zuen, harik eta 1992ko ekitaldira iritsi arte.

1992ko ekitaldia amaitzean, atzeraldi-prozesu bati ekin zitzaion, eta 1993ko ekitaldiaren erdialdean hauteman ziren, gogorren, atzeraldi horren ondorioak. 1994ko ekitaldian amaitu zen krisia, eta susperraldia sendotzen ari zela egiaztatu zen. Hazkunde ekonomikokoak izan ziren 1995. eta 1996. urteak, esportazio-datuek erakutsitako emaitza onek bultzatuta. Egoerak hobera egin zuen 1997an, eta 1998an lortu ziren 90eko hamarkadako emaitzarik onenak. Esportazioen hazkunde izugarria izan zen, urte horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren motorra, magnitude makroekonomikoek balantze saneatua zutelarik.

Ekonomia-hedapeneko etapa luze baten ondoren, mende berriaren hasieran mantsotu egin zen ekonomiaren hazkunde-erritmoa. Halaber, nazioartean ziurgabetasuna eta ezegonkortasun politikoa nagusitu zirelarik, geldialdi baten zantzuak hauteman ziren Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian. Testuinguru horretan, euroa jarri zen indarrean eta inflazioak arazoak sortu zituen, baina, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak inguruko herrialdeek lortutakoak baino emaitza hobeak izan zituen, eta enplegua sortu zuen.

Diru-bilketaren eta barne-produktu gordin nominalaren bilakaerari erreparatuta, ikusten da bi aldagai horiek ibilbide paraleloak egin dituztela, zerga-ekitaldi desberdinetan lortu arren haien maila gorenak. Diru-bilketak 1987ko ekitaldian lortu zuen maila gorena, urte horretan zerga-aldaketek diru-bilketan izan zuten eraginak bultzatuta, eta barne-produktu gordinak, berriz, 1989ko ekitaldian lortu zuen maila hori; izan ere, urte horretan, barne-produktu gordin erreala eta haren deflaktatzaileak % 6tik gorako igoera izan zuten, urtetik urtera.


acompañados de un activo papel impulsor del sector público, así como de un espectacular auge del consumo y la inversión. El punto álgido se alcanzó en los ejercicios 1988 y 1989, para a partir de ahí producirse un descenso paulatino del ritmo de crecimiento económico hasta llegar al ejercicio 1992.

Al término de 1992 se entró en recesión, prolongándose durante todo un año y alcanzando su mayor intensidad en la mitad de 1993. En 1994 se confirmó el final de la crisis y se constató la consolidación de la recuperación. 1995 y 1996 fueron años de crecimiento económico con un buen comportamiento de las exportaciones. La situación mejoró a partir de 1997 y en 1998 se alcanzó el mejor dato de la década de los 90. El motor de la economía vasca fue el crecimiento espectacular de las exportaciones, con un cuadro macroeconómico saneado.

Tras una larga etapa de expansión económica se entró con el nuevo siglo en una fase de desaceleración, manifestándose síntomas de estancamiento, en un panorama internacional cargado de incertidumbres e inestabilidad geopolítica. A pesar de ello, junto a la entrada del euro y el resurgimiento de las tensiones inflacionistas, la economía vasca obtuvo unos resultados que superaron a los cosechados por los países del entorno, generando nuevos empleos.

Comparando la evolución de la recaudación y el PIB nominal se observa que las dos variables siguen una senda paralela, si bien cada una de ellas alcanza su cota más elevada en un ejercicio distinto. La recaudación lo hace en 1987, habida cuenta de la trascendencia recaudatoria de las incidencias tributarias de ese año y el PIB nominal en 1989, ejercicio en que tanto el PIB real como el deflactor superaron los seis puntos de variación interanual.

Diru-Bilketaren gehikuntzaren bilakaera eta BPG nominala Euskal AE.an 1983-2008
Evolución del incremento de la recaudación líquida y el PIB nominal en la C.A. de Euskadi 1983-2008



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.33

Bi magnitude horien arteko desoreka handiena 1994ko ekitaldian ikusi zen, urte horretan nabaritu baitzen susperraldi ekonomikoaren hasierak zergen diru-bilketan isla izan bitartean magnitude horietan gertatzen den urruntze naturala.

El mayor desfase se produce en el ejercicio 1994 como consecuencia del decalaje natural entre el comienzo de la recuperación económica y su reflejo en la recaudación tributaria.

	BPG errealaren gehikuntza Incremento. PIB real %	BPG nominalaren gehikuntza Incremento. PIB nominal %	Diru-bilketaren gehikuntza Incremento. Recaudación %
1991	2,4	6,9	11,5
1992	1,0	6,4	7,4
1993	-0,8	3,3	2,1
1994	3,3	7,2	-1,0
1995	3,5	8,2	7,9
1996	3,0	6,7	10,7
1997	4,8	7,1	5,4
1998	5,9	9,1	14,5
1999	4,8	8,0	8,5
2000	5,2	8,0	9,4
2001	3,3	5,5	2,7
2002	2,4	5,2	5,0
2003	3,1	6,5	6,1
2004	3,7	8,3	7,6
2005	4,0	7,5	13,7
2006	4,4	7,8	11,4
2007	4,2	7,6	9,7
2008	1,9	3,0	-6,8
Batez bes.gehik. Incremento Medio 1991-2008	3,3	6,8	7,0

Iturria / Fuente: EUSTAT
Oinarri-urtea 2005 / Año base 2005

KOADROA / CUADRO IV.84

1998-2000 epean, bilketan izandako gehikuntzak BPG nominalaren gehikuntza baino handiagoak izan ziren berrir; 2001eko ekitaldian, aldiz, zerga gutxi izan ziren euskal ekonomiak kopuru nominalei dagokienez izan zuen erritmoan bilakatzea lortu zutenak. 2004ra arte, izan ere, bilketak eta BPG nominalak antzeko aldaketak izan zituzten beren bilakaeretan; 2005. urtean, berriz, zerga-bilketa BPG baino askoz gehiago hazi zen, eta hedapen ekonomikoko etapa berri horrek 2007an jarraitu zuen, baina maila txikiagoan, eta 2008an eten egin da, azkenean.

2008an, euskal ekonomiak ere uzkurdua handi batekin amaitu du urtea, eta behera egin du hazkunde-erritmoan, testuinguru orokor negatibo batean: herrialde batzuk atzerapenean sartu dira edo sartzeko atarian daude.

